

Goienka2a

SUDOKUA
ZALE ASKO DITUEN
JOKOA



KIROLA: BI DEBAGOIENDAR, GASHERBRUM II MENDIRA UDAN /10

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2005eko azaroaren 18a • V. urtea • 221. zenbakia • DOAN BANATZEKO

DEBAGOIENA

I. Euskararen
Jatorriaren
Biltzarra Oñatin /4

PEIO OTXANDIANO / IKASLE ABERTZALEAK

*"Bologna prozesuak ekarriko du
hezkuntza zerbitzua izatea,
eta ez eskubidea" /7*

ESKORIATZA

Mario Padilla
txistularia omenduko
dute asteburuan /6

BARRUAN, GEHIGARRIA: OSASUNAREN GAINEKO AHOLKUAK 8 ORRIALDETAN

ASTEKO GAIA: GAZTETXEAK ETA GAZTE LEKUAK

Non elkartu, gazteen esku dago erabakia

Oñatiko gaztetxea eraitsi zutela eta, gazteen bilguneen gaia pil-pilean dago. Debagoiengan gazte lekuak eta gaztetxeak topaleku garrantzitsuak dira. Lehenak Udalak bideratzen ditu eta bigarrenak gazteek kudeatzen dituz-

te, baina denetariko egoerak dau- de Debagoiengan. Eredu bakoitzak ditu bere aldekoak, baina askoren iritzia da ez diotela elkar- ri lekua kentzen.

Erreportajeak herri bakoitzeko egoera azaltzen du. /2-3



AMAGOIA LASAGABASTER

Kooperatiben Egunean, MCCri omenaldia

Munduko Kooperatibaren Eguna izan zen atzo, eguna, eta MCCko sortzaileak omendu zituen Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak Donostian, Kursaal aretoan, egindako ekitaldi baten. Ekitaldi horretan Jabier Salaberriak, konfederazioko presidentea; Ivano Barberinik, Nazioarteko Aliantza Kooperatiboko presidentea; eta Juan Jose Ibarretxe lehendakariak parte hartu dute. MCCko sortzaileei omenaldia bukaera ekitaldia izan da, eta konfederazioak garaikurra eman die Alfonso Gorroñoitiari, Jose Maria Ormaetxeari, Luis Usatorre eta Jesus Larrañagaren alarguei eta MCCko presidenteari, Jesus Cataniari. Argazkian, omenduak Barberinirekin. /GOIENKARIA

Procarsaren kudeaketa formulari uko egin dio Hiltegia Bizirik taldeak

Procarsa enpresak Debagoiengo hiltegia kudeatzeko formula mistoa proposatu zuen, udalekin, ez mankomunitatearekin. Mankomunitateak horren gainean erabakiko du azaroaren

30ean, baina Hiltegia Bizirik plataformak agertu du bere aurkako jarrera, eguaztenean egindako batzar ireki baten. Bere esanetan, proposamen horrek hiltegia pribatizatuko luke. /4

Astehenean, saskibaloiko gehigarria

Astehenekoa Goienkariak ibarreko saskibaloiko taldeen guztien gaineko gehigarria banatuko du hilaren 21ean.



Orain
Bergaran.

TOYOTA

EuskoAuto

Olabarrena z/g BERGARA 943 76 23 85
BERGARA EUSKOAUTO ELORREGI

Publizitatea

AZKEN ORDUKO ALBISTEA

Tekazko altzariak aurkitu dira Urretxun

Mota guztietako altzariak enkarguz egiten dituzte

Ikerketa luzeen ondoren, hementxe dakarkizuegu eskusiba handia.

Urretxun daukagun kontaktuarekin elkarriketa asko izan eta gero, guztiok desiratzen genuen informazioa lortu dugu: Urretxun -Azkoitirako irte-

eran-, logelen, egongelen eta bainuen erakusketa berri eta berezia dago.

Astehenetik zapatuta 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara dago irekita. Informazio gehiago 943 72 53 26 telefonon.

Gazteek aukeratzen dute non elkartu

Gazte lekuak eta gaztetxeak daude Debagoiengan; Udalek bideratuak eta autogestionatuak

IRATI AGIRREAZALDEGI

Leku gazteei, dio esarak, eta gazteak euren leku bila ibili ohi dira. Aisialdiko denbora non eman, euren ekintzak non antolatu, azken batean gaztaroa etxetik eta eskolatik kanpo non bizi, aukera ematen dien leku baten bila.

Ibarrean badira horretarako tokiak: gaztetxeak, gazte lekuak zein gazte txokoak. Gazteen bilgune dira denak, baina denean ez datoz bat, badituzte euren ezberdintasunak.

Udalaren esku daude gazte txokoak eta gazte lekuak; gazteek eurek gestionatutakoak dira gaztetxeak; eta ezberdintasun nagusi honek ematen du zeresanik. Oñatiko gaztetxearen eraisketa dela eta azken egunotan nahikoa hauts harrotu da eta horrek bidea eman du gai horretaz jarduteko.

GAZTEEN GUNEA HERRIZ HERRI

Ibarrean denetik dagoela esan dugu, eta herriz herriko begiratu azkar bat eginez, esan genezake herri batzuek antzekotasunak izan arren, egoera ez dela berdina denean.

Gatzagan, hain biztanle gutxi-ko herrian, gazteen kopurua ere ez da handia. Kultur etxean dute lokal txiki bat gazteek, eta besteak beste musika entzuten, hizketan... egoten dira Gatzatxo izeneko leku honetan. Gaztetxoak ere pixkanaka gerturatu doaz gero euren gune izango dena.

Eskoriatzan 2002an okupatu zuten gazteek lokal bat Santa Ana auzoan eta ordutik bertan egiten dituzte ekintzak. Esko-

riatzako Gazte Asanbladak eta Udalak, gainera, hitzarmena egin zuten aisialdiko ekintzak antolatzeko. Bestalde, Eskoriatzako Udalak gazte lekua egin gura du 12 eta 17 urte bitarteko gazteendako. Proiektua baino ez da, ordea, eta aurrerago ikusiko da zertan geratzen den asmo hori.

Aretxabaletan ez dago gaztetxerik gaur egun; aurreko legegaldian itxi zuten, eta ordutik, Udalaren eta gaztetxeko jendearen arteko harremana hoztu egin zen. Bestalde, gazte asanblada bat badago Aretxabaletan, gaztetxea itxi ostean sortua, baina honekin zerikusirik ez duena. Udalak utzi-

tako lokal batean zenbait ekintza antolatzen dituzte.

Gaztetxoagoendako, 12 eta 17 urte bitartekoendako, hain zuzen ere, gazte lekua zabaldu zuten urrian. Bertan, besteak beste jolasak, ikastaroak, txapelketak... egiten dituzte eta irteerak ere izaten dira.

Aramaion kultur etxea egin zutenean, bertan gazte lekua ipini zuten. Bi gela ditu eta 14 eta 20 urte bitarteko gazteak joaten dira bertara; hasierako adin muga txikiagoa bazen ere, gazteek eurek eskatuta, igo egin zuten. Gazteek eurek dute giltza eta Udalarekin harremanak izateko

hainbat ordezkari daude izendatuta. Harremana egon arren, ordea, hainbat kasutan itxi dute gazte lekua Udalaren eta gazteen artean izandako hika-mikengatik.

ARRASATEN ETA BERGARAN ANTZERA

Arrasateko eta Bergarako kasuek badute antzekotasunik. Biek ala biek aurrekariak izan dituzte oraingo gaztetxeetara iritsi aurretik, eta biak ala biak udalarenak diren eraikinetan daude egun.

Bergaran 1960ko hamarkadatik gazteak elizarena zen lokal batean elkartzen ziren. 80ko hamarkadan, gaztetxeen aroa

etorri zenean, gaztetxe bihurtu zen; baina 90eko hamarkadan itxi eta gazteak bota egin zituzten. Protesta eta negoziazioak etorri ziren gero, eta kartzela zaharra gazteen esku utzi zuen Udalak. Orain, beraz, eraikin historiko baten dute gazteek euren tokia, eta barruan hainbat berritze lan eta moldaketa ere egin dituzte. Gazteak eurak dira gune honen kudeatzaile.

Arrasaten hainbat lokaletatik pasa dira gazteak orain dauden tokira iritsi arte. Lehenengo gaztetxea Gurea zinema zegoen tokian egon zen; ondoren, ospitale zaharrera, kultur etxea egiten diharduten eraikinera joan ziren gazteak eta hamaika urte pasatxo bete zituzten bertan. 2002ko uztailean ospitale zaharreko gaztetxea itxi denboraldi batez gaztetxe barik egon ostean, Uarkapeko erabilera askotariko eraikinean egin duten gaztetxeko giltzak eskuratu zituzten. Lokala Udalarena da eta gaztetxeaz gain, entsegu lokalak eta Emakume txokoa ere badaude eraikin berean. Baina gaztetxearen kudeaketaz Gazte Asanblada arduratzen da eta horrela jarraitzea da euren nahia.

Arrasaten, hala ere, gaztetxeaz gain, hainbat gazte txoko ere badira. Herriko hiru auzotan daude, Zigarrolan, San Andresen eta Uribarrin, eta 12 eta 16 urte bitarteko gaztetxoendako dira gune hauek. Udalak eta Txaxilipurdi Aisialdi Taldeak dute gaztetxoko hauen ardura.

ANTZUOLAN, GAZTETXEA ITXITA

Antzuolan ere badute gazte txokoa. 12 eta 16 urte bitarteko-

Gaztetxe eta gaztelekuak; hobe da baten bat?



IÑIGO BIAIN

OÑATIKO GAZTELEKUA

Oñatiko gazte lekuak gazte asanbladarekin funtzionatu zuenean, gaztetxe baten antza zuen, Udalak bere hitza izan arren. Aitzindari izan zen Udalaren eta gazteen arteko oreka lortu zuelako. Egun, egoera ez da bata ala beste hobe den esateko modukoa



HARITZ ZUBIATE

ARRASATEKO GAZTETXEA

Gaztetxe eta gaztelekuen arteko ezberdintasuna argia da: bat asanblada batek kudeatzen du eta bestea Udalak. Gaztetxean erakundeekiko loturarik ez izateak eta autogestioaren aldeko apustua egiteak formula honen aldeko jarrera hartzerantz narama.



XABIER SARASUA

ARETXABALETAKO UDALA

Funtzio ezberdinak dituzte; bata ez du bestea kentzen. Gazte lekuak erakundeek bideratutako aisialdi ekintzetarako guneak dira, gehienetan 17 urtetik beherakoendako. Hortik gorakoek eurek kudeatutako proiektuak garatzea aberasgarria da.

Eguneko menuak!
Plater konbinatuak!
ogitartekoak... Zatoz Gurera!

Erretegia

Naruru

San Agustin, 48230 Elorriko (Bizkaia), 676589579

ARRASATE

ELORRIKO

DURANGO

ARRASATE

ELORRIKO

DURANGO

Bergara

Zumarraga

Soraluze

Elgeta

Kanpazar

EROSKI

PARKING

PARKING

PARKING

ERRETEGIA NARURU



Denetarikoz izaten dira gaztetxeetan: bilerak, bazkariak, bertso saioak, kontzertuak...

GAZTETXEAK, AUTOGESTIOAN OINARRITUTA

Okupaturako lokaletan batzuk, Udalen utzitakoetan beste batzuk, baina autogestioa da gaztetxeen oinarri. Lau dira guztira gaur egun iba-

rrean dauden gaztetxeak, gazte batzarrak gehiago izan arren, batzar batzuek lekuri ez dutelako edo ziztuztenak bota edo itxi dituztelako.



Oñatiko gazte lekuak jolaserako gunea eta informatika gela ditu; kontzertuak ere izaten dira.

GAZTE LEKUAK, UDALEN MENDE

Oñatikoa da ezagunena, baina ibarreko bost herritan daude gazte lekuak edo gazte txokoak. Udalekiko mendekotasunak bereizten ditu gazte-

txeetatik, eta gehienetan adin muga txikiagoa da. Jolaserako, kontzertuetarako zein informatikarako guneak aurki daitezke besteak beste.

dako asteburuetan zabalik izaten dena. Gaztetxeak, berriz, oraingoz itxita jarraitzen du.

Maristen eraikina eraitsi zutenean, gaztetxerik gabe geratu ziren antzuolarrak. Gero, ordea, 2004ko irailean gaztetxe berria ireki zuten Udalak utzitako lokal batean; baina han ibiltzen ziren koadrilen artean hainbat arazo sortu ziren eta apirilaren 2tik itxita dago.

Elgetan orain dela bederatzirente urte okupatu zuten Udalaren

lokal bat, eta bertan daude gaur egun. Kontrakorik ezean bertan jarraituko dute. Urte hauetan herriko gazte askok hartu du parte gazte asanbladan, eta gaur egun, 15 neska daude bertan, baina herriko gazte guztien bilgune da gaztetxea.

OÑATIN KASU BEREZIA

Berezia da oso Oñatiko kasua; eta beharbada horregatik, eta bertako gaztetxea orain gutxi eraitsi dutelako, sona handia izan du.

Orain dela 10 urte gazte lekua ireki zuten Udalak, eta bertan hiru zerbitzu eskaintzen ditu: topa lekua, gazte informazio bulegoa eta informatika gela. Honez gain, kontzertuak ere antolatu ohi dituzte. Hala ere, azken aldian aldaketak izan dira gazte lekuan. Azken bi urteetan gazte asanblada batek jardun zuen lanean gaztelekuan ekimenak antolatzen. Baina urte hasieran Udalak murrizketa batzuk egin zituela eta, gaztetxerako pausoa eman zuten. Gaztetxea irailean zabaldu zuten, baina orain bi aste eraitsi zuten Udalak. Eraisketa honek hainbat ika-mika eragin ditu Udalaren eta gazteen artean. Orain zenbait gazte proposamen itxia aurkeztu diote Udalari, eta aurrezantzean ikusiko da zer gertatzen den.

Gazteleku zein gaztetxe, gazteek elkartzeko guneak behar dituztela gauza jakina da.

‘Ametsen baratza’

Santutxuko (Bilbo) Sorgintxulo Gaztetxea iazko abenduan hustu egin zuten, baina, zutik iraun zuen artean, mugimendu askoren aterpe izan zen. Sorgintxuloren itxierak sona handia izan zuten eta ibarreko gazte asanbladek ere euren sostengua eman zieten Santutxuko gazteei.

Sorgintxulo hustu zutenean, beste ekimen batzuen artean liburu bat kaleratzea pentsatu zuten eta ideia ez da asmo edo amets hutsean geratu. Liburuaren oinarritzko gaia gaztetxea bada ere, parte hartu duten 41 idazleek zabal hartu dute gaia: maitasunaz, bidaiez, okupazioaz... hitz eginez. Oraindik gauzak egiten ari direla eta Sorgintxulo bizirik esateko kaleratu dute Ametsen Baratza liburua. Durangon, gaztetxearen itxieraren lehen urteurrenean aurkeztuko dute.

Liburua kalean, gaztetxerik gaztetxe zabalduko dute liburu mezua. Hala ere, Euskal Herrian dagoen gaztetxe kopurua kontuan hartuta eta Sorgintxulokoaz geroztik hustu dituztenak ikusita litekeena da horrelako egitasmoak aurrera ateratzeko lekukoa hartuko dutenik izatea. Izan ere, iaz Iruñeko Euskal Jai gaztetxeok argazki liburua argitaratu zuten.

“Ibarreko lau herritan daude gaztetxeak eta bost herritan gazte lekuak”

“Udalak lagatako lokaletan daude gaztetxe batzuk eta besteak okupaturako eraikinetan”



BergaraCars



Zure konfiantzazko multi-marka kontzesionarioa

BMW X3 2.0 BERRIA
BMW 120 D BERRIA
BMW 320 I BERRIA
MINI COOPER 115 ZP. BERRIA
MB ML 320, 350. BERRIA
AUDI A6 3.0 BERRIA
BMW M3 2002

Aitziturri 1 • Bergara
T: 943 76 18 71 • F: 943 76 58 22
www.bergaracars.com
bergarcars@yahoo.es

BMW 320 D 2005
BMW 320 D TOURING M. 2003
BMW 330 D TOURING M. 2003
VW TOUAREG RS 2004
VW TOUAREG V10 2004
AUDI A4 2.5 TDI S.LINE 2003
VW PASSAT TDI 130 ZP 2003



Arrasateko Udalak bere jarrera erabaki behar du, eta plataformak egun horretan protesta egingo du, aurretik egin izan duten moduan.

Procarsaren proposamenari uko egin dio Hiltegia Bizirik plataformak

Mankomunitateak dio gaia plataformarekin landu nahi izan zuela

LEIRE KORTABARRIA

Procarsak Debagoieneko hiltegia kudeatzeko egin duen proposamenari ezetza eman dio Hiltegia Bizirik plataformak, eta hala jakinarazi zuen eguaztengan batzar ireki baten. Proposamen horren bidez, Elkarte Misto bat sortu nahi zen udalekin.

Mankomunitateak proposamen bat du mahai gainean. Horren bidez, Debagoieneko hiltegia Elkarte Misto batek kudeatuko luke. Zerbitzuak publiko izaten jarraituko luke, baina ez Mankomunitatearen esku, udalen esku baizik. Hau da, Elkarte Mistoko kide udalak izango liriteke, kudeatzaile pribatuekin batera. Mankomunitatea hori aztertzen ari da, eta azaroaren 30eko batzarrean hartuko du erabaki bat.

Hiltegia Bizirik plataformak bere ezezko iritzia jakinarazi zuen batzar ireki baten, Oñatin. Euren arrazoi nagusia da "zerbitzuak publikotasuna eta mankomunita izaera galdu" egingo lukeela, izan ere, udalek elkartetik "ateratzeko erraztasun handiagoa"

dute. Bestetik, esaten dute proposamenak ez duela hiltegiaren iraupena bermatzen, eta errentagarritasun ekonomikoa izango lukeela helburu nagusi.

Debagoieneko Aralarrek bere jarrera jakinarazi du, eskatuz hiltegi publiko eta mankomunita eta zerbitzuaren kontzesio administratiboa, "Procarsak edo beste edozein enpresa interesatuk" parte hartzeko modukoa.

MANKOMUNITATEAK DIOENA

Mankomunitateko presidentek, Inazio Lakuntzak, horren aurrean, berretsi du Procarsaren proposamena "soilik aztertzen" ari direla, eta hilaren 30eko Gobernu Batzordean "beharbada, aintzat hartuko dela, eta

beharbada ez, eta lehen bezala jarraituko du hiltegiak". Mankomunitateak gaineratzen du Procarsaren proposamena plataformarekin batera landu nahi zutela, baina "ezetza esan zutenek, elkarrizketek ez zuten jarraitu".

ARRASATEN, EZOHICO BILKURA

Azaroaren 30ean erabaki behar du Mankomunitateak. Baina, lehenengo, Hiltegi Batzordea batzartuko da, eta udal bakoitzak bere jarrera mahairatuko du han. Horren aurretik, Arrasaten ezohiko osoko bilkura egingo dute, PP, PSE, Ezker Batua eta Aralarrek eskatuta. Lau alderdiok mozioa aurkeztuko dute hiltegia Mankomunitatearena izaten jarraitzeko baina kudeaketa kontzesio administratibo bidez emateko. Plataformak nahi du Arrasateko horko erabakia eraman dezala Hiltegi Batzordera.

Oñatiko udalak plataformaren aldeko jarrera du; Aretxabaletan eta Eskoriatzan, aipatutako mozioa onartu zuten; Antzuolan ez zuten onartu, eta Bergaran eta Arrasaten, mozioa ez zen bilkurara eraman.

Procarsak proposatzen du Elkarte Misto bat sortzea udal guztiekin

Mazda3. Behar duzuna badaukazu?

Bikar **M MENDIOLA**

San Andres 10 D · Tel.: 943 77 21 00 · ARRASATE

Interioristak

Oihana Plaza & Oihana Beristain

- Barne arkitektura eta lokalen proiektuak eta berrikuntzak
- Obra zuzendaritza
- Erakusleho apainketa

616 84 55 96

Neguko errepede zaintza neurriak indartu dituzte

Zaintza denboraldia azarotik apirilera bitartean da

GOIENKARIA

Eguraldi txarra hasi dela eta, hil honetatik bertatik indarrean daude neguko bide zaintzako neurriak. Foru Aldundiak baliabide gehiago ipini ditu, besteak beste, Debagoieneko Esaterako, gurean izango da gatz-biltegi handiena (850 tn).

Foru Aldundiak bereziki zaindiko ditu GI-632 eta GI-627. Elorekin ipini dute Gipuzkoa mendebaldeko gatz-biltegi handiena (850 tn). Ibarrean beste bi biltegi daude, 100 tonakoak, Arlabanen eta Bergaran. Horrez gain, Gipuzkoa mendebalde osorako 16 kamioi dago -jaz, 12-, eta bi biltegi gehiago. 53 langilek zaindiko dituzte bideak.

NEGUA, "LATZ SAMARRA"

Eguraldiak, hala ere, ez du oraingoz arazorik sortu gurean; aitzitik, Urkulu urtegiaren ia %70 beteta zegoen aste hasieran.

Joxe Landa eguraldi adituak, Arrasate Irratiko kolaboratzaileak, dio datozen egunotan eguraldi suabea izango dugula. Landak dio ohiko negua izango dugula; latz samarra, hala ere.

Eguraldiak ez du arazorik sortu ibarrean, baina negu latz samarra iragartzen dute

Euskararen jatorriaz arituko dira bihar Arantzazun

I. Euskararen Jatorriaren Biltzarra antolatu dute

GOIENKARIA

I. Euskararen Jatorriaren Biltzarra egingo dute bihar, zapatua, Arantzazun. Mikoleta, Euzko Iazera, Bizi-Hitza eta Ena elkarteek antolatu dute, eta aurtengo helburua da euskararen jatorriari buruz ikertu dutenen materialak ezagutaraztea. Bittor Kapanagak *Erro eta Gara* liburuan azaldutako teoria landuko dute bereziki.

Beste ikertzaile askok ere parte hartuko dute.

EGITARUA

Ekitaldiak 10:00etan hasiko dira. 10:15ean, euskararen jatorriaren gaineko ikerketak errepasatuko dituzte. 12:30ean, mahai ingurua egingo dute; 14:15ean, bazkaria; 16:00etan, Kapanagaren hitzaldia; eta 17:30ean, mahai ingurua, 19:00ak arte.



I. Mailegu eta aurrezki truke programa

Mundukidek eta Lankik esperientzia kooperatiboen truke programa berri bat aurkeztu dute martitzenean. Helburua da mailegu eta aurrezki erakundeak kudeatzeko heztea. Hego Amerikako eta Afrikako hainbat lagun etorri dira parte hartzera. Besteak beste, Euskadiko Kutzaren jardueraren berri jasotzen ari dira. Aurkezpeneko argazkian, Jose Antonio Mendikute, HUIHE-Ziko dekanoa; Adela Delgado, Nikaraguako partaidea; eta Jose Anjel Mikeo, Mundukideko koordinatzailea. /GOIENKARIA

Emakumeenganako tratu txarren aurka, berdintasuna eskatu dute

Gai horren gaineko zenbait ekitaldi izan dira Arrasaten eta Bergaran

U. MADERA / L. KORTABARRIA

Emakumeen aurkako indarkeria sexuen arteko desberdintasunetik datorrela, eta berdintasuna lortu ezean, arazoa ez dela konponduko, hori izan da egunotan Debagoiengan horretaz hitz egin duten adituen konklusioa.

Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Gaineko Lege Integralak urtebete egingo du laster, eta gai horren inguruko hausnarketa egin eta ekintza plana aurkeztu zuen Arrasateko udalak eta herriarrek osatutako plataformak. Euren esanetan, berdintasunaren alde lan egitea da arazoa konpontzeko modu bakarra.

Arrasaten, emakumeek ipinitako salaketa kopurua asko igo da: 2000n eta 2001en, bost emakume egin zuten salaketa; 2002an, lauk; 2003an, 10 salaketa egon ziren, eta ia, dagoeneko 17 ziren. Gehienak tratu txar psikikoak ziren. Hala ere, Arrasateko plataformak esan zuen tratu txar kasu gutxi salatzen direla.



Arrasateko emakumeen aurkako indarkeriaren diagnostia egin zuten martitzenean.

Bergaran, Maria Antonia Caro adituak egin zuen berbaldia, Zutik taldearen eskutik. Bere mezua Arrasateko taldearen bera izan zen: berdintasuna lortu behar dela arazoa konpontzeko; izan ere, bere ustez, "gobernuak zigorra gehiegi erabiltzen dute, baina hori ez da konponbidea".

DATOZEN HITZALDIAK

Gaur, hilak 18, *Emakumeen Aurkako Indarkeria* delako hitzaldia egingo du Arrasateko udaletxean, 19:00etan, Norma Vazquezek. Martitzenean, hilak 22, *Mujeres en situación de maltrato: ¿por qué regresan?* berbaldia egingo du Vanessa Galegok Eskoriatzako kultur etxean, 18:00etan.

Sidenorko langileak kezkatuta daude lantegia erosi dutelako

Elgetako Forjanor lantegian 51 langilek dihardute

IRATI AGIRREAZALDEGI

Elgetan altzairugintza lantegia duen Sidenor enpresa erosi egin dute Banco Santanderrek eta Brasilgo Gerdau enpresak, 443 milioi eurotan. Sindikatuek euren kezka azaldu dute langileen geroa ez dagoelako ziurtatuta.

Sidenorren ordezkariak duten ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek lantegiaren etorkizunaren gainean euren kezka azaldu dute. Gainera eskatu diete jabe berriei informazio gehiago emateko.

Inbertsioen eta lan baldintzen gainean aurrez hartutako konpromisoak eusteko eskaria ere egin dute langileek. Besteak

beste errelebo kontratu bidez lan taldea gaztetzea eta behin behineko lan kontratuak finkatzea eskatu dute.

Eusko Jaurlaritzarendako, "positibo da Sidenor talde handiaren batean sartzea. Lehiakortasunaren euskal egitasmoaren arabera tamaina ezinbestekoa da globalizazioaren aroan.

EROSKETAREN DATUAK

Akzioen %20 gorde dituzte Sidenorko zuzendariak; %40 erosi ditu Gerdau konpainiak eta beste horrenbeste Banco Santander Central Hispanok. Akziodunei ez ezik, salmentak langileei ere mesede egingo diela uste dute Sidenorko buruek.

Euskal Herrian 1.390 langile ditu Sidenorrek.

AHTko Gasteiz-Arrasate-Bergara zatiko lanak 2006n hasi nahi dituzte

GOIENKARIA

Legebiltzarrean, PSE alderdiak iragarri zuen 2006 urte hasieran hasiko direla AHT egiten, Gasteiz-Arrasate-Bergara zatian. Aukera handiak daude hala izan dadin.

Eusko Jaurlaritza eta Espainiako Sustapen Ministerioa AHTren gaineko komenio bat egitetik geratu daude. Jaurlaritzak nahi du

komenioa urte amaiera baino lehen sinatzea, izan ere, abenduaren 30ean onartu behar du aurrekontua Lakuak, eta ordu-rako komenioa lortu badute, aurrekontuetan AHTrako kopuru bat sartzeko aukera egon daiteke oraindik. Jaurlaritzaren aurrekontu proiektuan ez dago AHTrako kopururik.

Komenioaren arabera, Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak lanak banatuko lituzkete,

eta Gasteizek bere zatiaren finantzazioa aurreratu egingo luke eta gero Kupotik deskontatu.

LANEN EGUTEGIA

Prozesuak bide hori jarraitzen badu, AHTko lanak laster hasiko dira. PSEk Legebiltzarrean esan du Gasteiz-Arrasate-Bergara zatiko lanei 2006 hasieran ekingo dietela, eta urte bukaeran, berriz, Arrasate-Bergara-Bilbo zatiko lanei.

DEBAGOIENEAN LABUR

Autobidearen gaineko bilera egin dute Bidegiko eta Eskoriatzako Udal ordezkariak

Eguaztenez Bidegiko eta Eskoriatzako Udaleko ordezkariak elkartu ziren autobidearen auziaz hitz egiteko. Bidegik argi utzi du Eskoriatzako autobide zatiko aldatutako proiektuarekin bere horretan jarraituko dutela. Hala ere, udal ordezkariarekin adostu zuten autobidearen gaineko zenbait gai landuko dituztela eta batzordean eztabaidatu ondoren berriz elkartuko direla Bidegi eta Udala. Bestalde, Kaltetuen elkarteak esan du, Bidegik eurekin elkarrekin asmorik ez duenez, zuzenean joko dutela Foru Aldundira gai honen gainean hitz egiteko. Kaltetuen hitzetan, orain arte gertatutakoaren atzean "azpijokoa" izan da, eta hori salatu nahi dute.

Gasteizen izango dira, gaurtik hasita, UNEDen psikomotrizitate jardunaldiak

UNEDek antolatuta praktika psikomotrizitate gaineko jardunaldiak hasiko dira gaur, egubakoitza, Gasteizko Europa jauregian. Hilaren 20ra bitartean hainbat adituk hartuko du parte. Besteak beste, zientzia horren sortzaile Bernard Aucouturierrek, Alberto Lasa haur psikiatrak eta Philippe Lemenu psikoanalista eta psikologoak. Haur Hezkuntzan dihardutenendako interes handiko jardunaldiak izanik, 300 lagunetik gora espero dituzte.

KIA
KIA MOTORS

BERRIA

KIA RIO
Gasolina/Diesel
11.800 eurotik aurrera*

Ezagutu ezazu!

ESKAINZA BEREZIAK

KIA CARNIVAL DVD-a DOAN
Gasolina/Diesel
19.300 eurotik aurrera*

KIA SPORTAGE
Gasolina/Diesel
19.155 eurotik aurrera*

Tecnocar

Honda eta Kia banatzaile ofiziala

TECNOCAR GIPUZKOA
Erakusketa eta tailerra
Araba etorbidea z/g - Arrasate
943 79 22 67 -
Faxa: 943 71 27 38

Adi!

- 2. eskuko autoen sekulako aukerak
- 0 km aukera bereziak
- 3 urteko garantia

*Prever plana barne.

HONDA
The Power of Dreams

HONDA ACCORD
Munduko diesel motor onena bere kategorian

HONDA ACCORD
22.950 eurotik aurrera*

HONDA CIVIC gama osoan
ESKAINZA BEREZIA

0 km ibilgailuak;
3.000 eurorainoko deskontua!

Auto berriak:
%13 rainoko beherapena!

HONDA CIVIC (3 ate)
Gasoli./Dies.
13.300 eurotik aurrera*

ANTZUOLA

Abendurako argitaratuko dute Kristina Pavoren toponimia liburua

Antzuola Ikerketa Beka jaso zuen Kristina Pavok 2003ko azaroan, herriko toponimia jasotzeko. Urtebeteko lanaren ondoren, maiatzean eman zuen egindakoaren berri, eta abenduan liburu modura ikusiko dugu. Antzuolako leku-izenak batzea, aztertzea eta arautzea izan dira lanaren helburu nagusiak.

Liburuarekin batera Antzuolako mapa berria kaleratuko dute; izan ere, duela urte batzuk kaleratu zuten mapa berri eta hobetu egin dute. Baserri eta leku izenak eguneratuta agertuko dira mapan. /U.A.



ESKORIATZAKO UDALA

ESKORIATZA

Mario Padilla txistulari eta euskaltzaleari omenaldia

Udalak eta hainbat herritarrek merezitako omenaldia egingo diote asteburuan herriko seme Mario Padillari. Bandako zuzendaria, txistulari eta dantzari taldeen sortzailea, ikastolaren bultzatzailea eta askoz gauza gehiago da Padilla. Egitarau mardula antolatu dute haren omenez. Besteak beste, antolatzaileek gonbidapena bidali diete Padillaren ikasle guztiei -104 bat lagun-, domekako kalejiran txistua jo dezaten. Horrez gain, bandako Jesus Urrutiak eta Imanol Andetxagak *Mario* izeneko biribilketa konposatu dute txistulariek eta bandak jotzeko. Zapatuan parrokiaren egingo duten kontzertuan izango da pieza horren estreinaldia; eta Udalak *Txistua eta dantza gure kulturaren* izena duen erakusketa jarri du Ibarraundi museoan. /IKER BARANDIARAN

ARAMAIO

Heziketa ekimen berezia abiarazi dute Azkoagan txikiendako

Guraso talde batek bultzatutako ekimen da, 3 eta 6 urte bitarteko umeei zuzendutakoa. Seme-alabendako ezaugarri jakin batzuk dituen heziketa mota nahi dutelako abiarazi dute ekimen hori Azkoaga auzoan. Ezaugarri horien artean, esaterako, umeek naturarekin harremana izan dezaten nahi dute gurasoek, fantasia eta irudimena lantzea, umeek erabiltzen duten materiala naturala izatea eta hainbat adinetako umeak elkarrekin egotea.

Egitasmo horretan, aurtentzen 11 ume elkartzeko hasi dira Azkoagan. /U.M.

ELGETA

Jazz kontzertua gauean, Pirineos Jazz Orkestraren eskutik, Espaloian

Jazz kontzertu didaktikoa izango da gaur, barikua, Espaloian, 22:30ean. Udalak eta Kutxak elkarlanean antolatutako *Tam-tametik tom-tomera* emanaldian, jazzaren historia laburbilduko du zortzi musikaririk osatutako Pirineos Jazz Orkestrak.

IPIUIN KONTALARIA

Bestalde, barikuan, hilaren 25ean, Joxe Mari Karre-ri ipuin kontalariak emanaldia egingo du liburutegian. 18:30ean hasiko da 10 eta 16 urte bitartekoendako saioa. /I.A.

BERGARA

Gabiria Dorrea berritzeko lanak 2006 urtean egingo dituzte

Gabiria Dorrea berritzeko lanak 2006. urteko hasieran egingo diete. Udalak eta Tavexek Gabiria berritzeko hitzarmena sinatu zuten joan den apirilaren 22an.

Amenabar enpresa ari da Gabiria Dorrea berritzeko proiektua lantzen. Sinatutako hitzarmenaren arabera, administrazioak berritze lanen erdia ordainduko du, eta beste erdia, Tavex taldeak. Aurrekontua 1.500.000 euro ingurukoa izango da. Hasiera baten, berritze lanek urtebete inguru iraungo dute. Goitik beherako berritzea beharrezkoa izango da, barrutik nahiko hondatuta baitago.

XV. MENDEKOA

Edozein modutan, Bergarako Udalak jarraituko du Gabiria Dorrearen jabe izaten. Dorrea XV. mendekoa da, pizkunde estilokoa, eta monumentu kalifikatu izendapena dauka, Jaurlaritzako Kultur Sailak ematen duen gorenaren.

Berritze lanen erdia ordaintzearen truke, Tavexeko bulegoak Gabiria Dorrean kokatuko dira etorkizunean. Algodonera San Antonioko pabilioiak apirilaren bota zituzten, hango lursailen etxebizitzak egin ahal izateko. Hala ere, bulegoen eraikinak han jarraitzen du. Tavex taldeko 25 lagun inguruk jarraitzen dute han lanean.

Gabiria Dorreak hiru solairu dauzka eta berrikuntzaren ondoren 900 m² inguru izango dira erabiltzeko moduan. Udalaren arabera, kultur ekitaldiak antolatzeko erabili ahal izango da Dorrea. /E.M.

Zertzelada

Administrazioak lanen erdia ordainduko du, eta beste erdia, berriz, Tavex taldeak. Aurrekontua 1.500.000 euro ingurukoa izango da

ARRASATE

Arrasateko Kiliki eta Erraldoien Konpartsak 20. urteurrena bete du

Hori ospatzeko, asteleheneretik (hilak 21) zapatua arte, erakusketa ipiniko dute Monterronen, eta hilaren 26an, zapatua, kalejira egingo dute Arrasaten.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

Erraldoiak eta kilikiak ipiniko dituzte erakusketan, eta argazkien bitartez, bi hamarkada hauetako ibil-

bidea erakutsiko dute. Horrez gainera, ikus-entzunezkoa ere prestatu dute, konpartsaren gainekoa. Eta kamisetak ipiniko dituzte salgai, konpartsarendako laguntza batzeko.

Zapatuko kalejirari dagokionez, berriz, eguerdian aterako dira erraldoi eta kilikiak dultzainen doinuek lagunduta. /I.B.



ARRASATE PRESS

Konpartsakoak ateratzen direnean, kaleak dezente animatzen dira.

OÑATI

Nagusien Astea ospatuko dute, zapatuan hasita, San Martin egoitzan

Zapatuan parrokiako abesbatzarekin meza eta senitartekoekin bazkaria izango dituzte San Martin egoitzan. Horixe izango da Nagusien Astearen hasiera. Datorren astean ekintza gehiago egingo dituzte.

Oñatiko Udal Bandaren kontzertua, Bertso Eskola-koen bertso saioa, Natur Eskolako kideen erakustaldia, Oñatz dantza taldearen ikuskizuna, gaztaina jana, bolo eta petanka txapelketa eta txokolatearen historiari buruzko hitzaldia izango dituzte, besteak beste, San Martin egoitzan datorren astean. /O.E.

ARETXABALETA

CVL lantegiko makinak poligono berrira eramaten hasi dira astean

Aretxabaleto Lausitta ka-lean dagoen Cerrajera Valle Leniz lantegia leku aldartzan dabilta. Eroan dituzte trokelak eta zumitza, eta gaur makinak eroaten hasi dira. Herriaren iparraldeko sarreran eraiki berri duten industri poligonoan izango du CVLk egoitza. Biltegia dagoeneko abian dago, eta makinak abenduan jarriko dituzte lanean; azkenik, bulegoak urte berrian eroango dituzte.

Bestalde, astelehenean egindako osoko bilkuran onartu zuen udalbatzarrak poligono berriaren izena: Arbizelai poligonoa. /M.A.

LEINTZ GATZAGA

Autobus-linea erdia Gatzagatik igarotzea gura dute herritarrek

Eguaztenean batu ziren gatzagarrak, Diputazioak egindako proposamenak aztertzeko. Herritarrek ez daude konforme Koldo Azkoitia diputatuak eskainitakoarekin, eta hau eskatuko diote: gutxienez autobus-linearen erdia Gatzagatik igarotzea.

MARRAZKI LEHIAKETA

Bestalde, *Egin zure Gabonetako marrazkia* lehiaketa antolatu dute 6 eta 12 urte arteko eskoriatzar eta gatzagarrandako. Abenduaren 2a baino lehen entregatu behar dira lanak. /X.U.

Hezkuntza hizpide da azken egun hauetan: eskoletako emaitza txarrak, LOE, Bologna prozesua... Ikasle Abertzaleak taldeak huelga deitu zuen egunerako Bologna prozesuari ezetz esateko. Zergatik galdetu diogu.

OIHANA ELORTZA

Zer da Bologna prozesua?

Hezkuntza erreforma bat, Europa osorako egiten ari direna. 1994an munduko merkataritza erakundeak akordio bat egin zuen: zerbitzuen salerosketarako akordio orokorra. 144 estatu biltzen ziren eta 160 zerbitzu zerrendatu zituzten; tartean, goi mailako hezkuntza. Beraz, hezkuntza zerbitzu moduan planteatzen dute. Hezkuntza eskubidea dela aldarrikatu dugu orain arte eta orain saldu eta erosi daitekeen zerbitzu bat bezala ikusten dute eta hori izugarriko atzera pausua da.

Zein da zuen iritzia?

Erakunde politikokoak izan daitezela Europako hezkuntza prozesuaren kudeatzaileak, ez enpresak. Ikusten da Bologna prozesu multinazionalak eta erakunde ekonomikoek diseinatu dutela, eta horrek sortzen digu benetako kezka.

Zer interes du multinazional batek hezkuntza prozesu bat kudeatzeko?

Negoio posible bat ikusi dute, lehenik eta behin. Horrez gain duten beste interesa da goi mailako hezkuntza lehiakorragoa egin daitekeela merkatura begira. Adibidez, enpresari batek uste dezake Arte Ederrak edo Euskal Filologiak ez diola ezer ekartzen enpresa ikuspegi batetik. Beraz, goi mailako hezkuntza erreformaz pentsatzen dute euren beharretara egokitzeke.

Titulazioak desagertuko dira, orduan, Bologna prozesuarekin?

Zerrenda bat egin dute dagoeneko, eta egungo titulazio asko ez dira agertzen. HUEZIn, adibidez, Humanitate eta Enpresa ikasketak desagertu egin dira. Dagoeneko ikasten daudenek jarraituko dute, baina lehen mailan ez da inor matrikulatu ikasturte honetan. Horrez gain, ikasketa asko degradatu egingo dituzte: adibidez, egun bost urteko titulazio bat hiru urtetan egingo dute; ingeniariak hiru urtetan ikasiko dute eta ez lautan... Horrek esan nahi du askoz ikasketa orokorragoak, generikoak, emango dituztela. Espezializatu ahal izateko masterrak egin beharko dira, ikasketa pribatuak izango dira, eta garestiak, beraz.

Ze toki du euskarak hezkuntza erreforma horretan?

Euskara ez dago onartuta hizkuntza ofizial moduan European, eta beraz, ez dugu inongo bermerik hezkuntza sisteman euskara egongo denik. Gaur egungo egoera ere ez da hain ona, baina gero okerragoa izango dela uste dut.

Hainbat eragile Euskal Kurrikulum-aren alde ari dira. Izango du eraginik erreformak?

Euskal Kurrikuluma 0 eta 16 urte bitarteko kurrikuluma da, eta Bologna prozesua unibertsitate mailako erreforma da. Hala ere, horrelako testuinguru batean harik eta zailagoa izango da Euskal Kurrikuluma praktikara eramatea. Herrialdeek, eta batez ere estaturik gabeko herrialdeek, harik eta zailagoa izango dute euren Kurrikulum propioa hezkuntza sisteman txertatzeko, irizpideak Europa mailakoa izango direla, homogenizatuak.



Peio Otxandiano

IKASLE ABERTZALEAK

“Bologna prozesuak ekarriko du hezkuntza zerbitzua izatea, eta ez eskubidea”

MULTINAZIONALEN HEZKUNTZA ERREFORMA

“Goi mailako hezkuntza lehiakorragoa gura dute merkatura begira, eta behar dituzten titulazioak eta hezkuntza sistema hartzen dituen erreforma egin gura dute”

2010 DA EPEA

“Bologna prozesua Europa osorako hezkuntza erreforma da eta 2010ean jarri gura dute Europa guztian; MUn, aurre lan bat egin dute Mendeberrri proiektuarekin”

Noiz aplikatu da Bologna prozesua?

2010 urtea da epea. Bologna prozesua txertatzea oso konplexua da; Europako titulazio guztiak homogenizatu behar dira, herrialde bakoitzak bere *liburu zuria* egin behar du, beste kreditu sistema bat jarri behar dute... Eta horri guztiari gaineratu behar zaio irakasleen eta ikasleen ezezkoa, oposizioa.

Bologna prozesua oso prozesu hermetikoa, itxia, da. Bere diseinuan badaude aurrekari batzuk: Sorbonako deklarazioa,

Europako hainbat unibertsitatetako errektoreek egin zuten bilera eta sinatu zuten akordioa eta Bolognan egin zuten deklarazioa, adibidez. Bestalde, merkatuaren interesei erantzuten dieten enpresa eta multinazionalak ere oso isilik landu dute prozesua, egiten ari direna astakeria handia delako.

Zein da erakunde edo alderdi politikoen erantzuna?

Nik neuk ez dut ikusi klase politikoa-ren posizio garbirik ez Euskal Herrian ezta

Espainiako Estatuan ere. Ikasleek, sindikatuek eta hainbat herri mugimenduk eman dute euren iritzia, baina Bologna prozesuari buruz ezer gutxi idatzi eta esan da orain arte, ezezaguna da oraindik. Orain txere sortu da Euskal Herrian Bologna prozesuaren uholdea eta egueneko greba eta mobilizazio deialdia inflexio puntu bat izango dela uste dut. Ikasleok izan gara lehenak esaten Bologna prozesuarekin ados ez gaudela.

2010 da Bologna prozesua European jartzeko epea. Baina hasi dira herrialdeak horretarako lanean? Ikusten da Euskal Herriko unibertsitateetan Bologna prozesua datorrela?

Mondragon Unibertsitateak, adibidez, uste dut nolabaiteko inteligentziaz jokatu duela eta saiatu dela aurre lan bat egiten Bologna prozesua heldu baino lehen. Horren adibide esanguratsua da Mendeberrri proiektua.

Bologna prozesuak bilatzen duena da ikaslearen eksklusibotasuna: bere formazio profesionalera dedikatu behar da ikaslea bere bizitza unibertsitarioan, gaitasun batzuk hartuko ditu gero enpresetan lana egiten duenean lehiakorra izateko. Planteatzen du metodologia klasikoa, maisutasunezko eskolak, ez dela hain eraginkorra eta komeni dela lider izateko ahalmena, taldean lana egiteko gaitasuna eta antzerako ikasgaiak erakustea eta lantzea.

Bologna prozesuaren aplikazioa da MUnen Mendeberrri proiektua?

Ikasleok betidanik aldarrikatu dugu beste protagonismo bat izan behar dugula hezkuntza prozesuan eta horren inguruko berrikuntzak ondo hartzen ditugu. Mendeberrri proiektua ere berritzailea da eta hori positiboa da baina uste dugu hezkuntza erreforma bat ezin daitekeela planteatu Bologna prozesuak planteatzen duen moduan. Hezkuntza prozesu baten abiapuntua izan behar du kooperatibismoak jasotzen dituen baloreei zuzenduta: pertsona bat kritikoa izango dena, integrala izango dena. MUn egiten diogun kritika da gutxienez galdetzeko kooperatibismoaren baloreak non geldituko diren Bologna prozesuarekin eta ez ikusteko bakarrik enpresa ikuspuntu huts batetik.

EHUn ere hasi dira martxan antzerako metodoekin.

Datuek erakutsi dute Espainian eskola-porrot handia dagoela. Zein izan daiteke arrazoia?

Bologna prozesuak ez dakit hori areagotuko duen edo ez, baina argi dago, prozesu hau martxan jartzen badute, jende gutxiagok izango duela ikasteko aukera. Masterrak oso garestiak dira eta jende asko geldituko da goi mailako hezkuntza sistematik.

Jarraitu duzu Espainiako Gobernuaren eta Elizaren arteko eztabaida Erljio ikasgaia dela eta?

Garai bateko LOU eta oraingo LOE konbergentzia praktikara eramateko dira. Espainiako eskumak berriro zapaldu du Gobernuak alde ezkeriar batetik hartutako jarrerara. Alderdi Popularra berriro ikusi da manifestazioan eta uste dut propaganda politikoa dela, beste edozer gauza baino gehiago.

Nola ikusten duzu ikastetxe publiko eta pribatuaren arteko lehia?

Ikastolak eta eskola pribatuak herri honetan sortu ziren zegoen behar bati erantzuteko, euskaraz ikasteko eskubidea bermatzeko. 25 urte pasatu eta gero autonomiaren inguruan sortu den esku-sistema horrek gauza batzuk bermatzen ditu. Hala ere, hesi horiek hautsi behar ditugu eta beste jauzi bat egin behar dugu: ikastolak sortu eta nolabaiteko sistema propioa sortzeko gai izan bagina, orain euskal unibertsitatea eta euskal eskola nazionala sortzea.

Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa eta helbidea agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAK bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 25 05 01
Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com



Eskolak euskaldunon eskubideak urratzen ditu?

Egun, Euskal Herriko ikastetxe eta unibertsitateetan (publiko eta pribatuak) ikasten diharduten hiru ikasle bi ez dira euskaldunduko, orain dela egun gutxi plazaratu zen ikerketa baten arabera. Argi dago, beraz, eskolak euskalduntzen ez duela. Arazo larria da eta, beraz, konponbideek berehalakoak eta sendoak izan behar dute. Lakuako Gobernuak, berak, onartu egin behar izan du urte luzeetan ezarri duen hizkuntza-ereduen sistemak porrot egin duela.

Batzuek, ordea, esaten dute eskolatan euskalduntze prozesua azkarregi doala, eta horien artean dago itxialdiren bat edo beste egin duen irakasle erdal-dunen talde bat. Kuriosoa da: urte luzeetan bertako hizkuntza ikasteko boron-daterik agertu ez duen irakasle talde horrek denbora, laguntza eta diru gehiago eskatzen dio Ibarretxeren Exekutiboari.

Ez da, tamalez, neska-mutil euskaldunen hizkuntza eskubideak urratzen dituen bakarra: Mondragon izeneko unibertsitateak ingeniariak ikasketetako euskal adarrean matrikulatzen diren gazteei ez die ikasketak euskaraz osatzen uzten. Mondragon Unibertsitateak karre-rako azken ikasturteetan gehienbat erdarazko irakaskuntza eskaintzen du.

Hau guztia salatzeke asmoz, iaz bezala, aurten ere hainbat eragileren babesean, Eskolak Euskaldundu ekimenak aurrera jarraituko du hizkuntza politika berri baten beharra aldarrikatzen. Horretarako ere, beharrezkoa izango da herritarren zein Euskalgintzaren babesa, bai eta lana hurrengo hilabeteetan ere.

ARRASATEKO EHE
Arrasate

Berotegiko onddoak

Demagun, XXII. mendea dela. Pinua sartu beharrak narrez josi ditu herriko basoak. Eta, noski, horrenbeste maite ditugun onddoak ez dira jada ateratzen.

Hori horrela ikusita, Udalak, ideia paregabe bat izan du. Ederki ordainduta, puntako teknologiadun berotegi (invernadero) bat ipini du oñatiarrok behar ditugun onddoak sortzeko. Hone-la, onddoak behar dituenak plaza ondo-ko berotegira joan eta bertan izango ditu nahi beste. *Domingeroak*, oraindik ere baitaude, gustura.

Bada, hala ere, antzinako erara onddoak batzea nahiago duenik. Eskuak gurutzatuta jarraitzeko gogorik ez eta jende multzo bat narrez betetako herriko baso-sail bat garbitzen hasi da. Gogoz lan egin eta gero lortu dute helburua: basoari zegokion itxura eman eta onddoak, pixkanaka bada ere, hasi dira berriro iriteten. Herritarren borondatezko lanak ilusioa piztu du eta gero eta jende gehiago ikusi daiteke onddotara basora joaten berotegikoak alde batera utzita.

Udalaren erantzuna, alkatea buru duela, berehala etorri da. Ez zaio inondik inora bidezkoa iruditu Udalarenak (herriarenak) diren basoetan norbaiteskua sartu izana. Ezta narrez jositagonek ere.

Pisuzko arrazoiak ipini dituzte mahai gainean. Inork ez omen du baimenik eskatu basoa garbitzeko. Arriskutsua omen da basoan zehar ibiltzea, pinuren bat jausi baitaiteke eta Udalak ez du horren erantzukizunik nahi. Bertako hezetasuna ere kaltegarria omen da osasunarentzat. Inguruko baserri banaka ere kexu omen dira basoa garbitzeko erabilitako sasi-garbitzeko makinaren zarategatik.

Gauzak horrela, basotik barrena onddotan inor ibili ez dadin, pinuak bota eta produktu kimiko bat zabaldu du baso guztian zehar; lurra guztiz erre eta onddoak gehiago ateratzea saihesteko.

Apustu garbia egin du Udalak: berotegiarena. Onddoak nahi dituenak bertan aurkitu ditzake. Inolako arriskurik gabe, katarrorik harrapatu gabe, alferreko ibilaldirik gabe eta gainera nahi beste kilo!

Errealitateak urrutitagoen testu honi aldatu iezaiozue honako hitz hauek: Berotegia=Gaztelekua; Basoa=Gazte-txea; Onddoak=aisialdi eredu; Produktu kimikoa=hondeatzeko makina Azkar antzemango duzue daukan gaurkotasanaz.

Gora, basoko onddoak!

XABIER IGARTUA
Oñati

Emakumeen aurkako indarkeriarik ez!

Emakumeen kontrako indarkeria da emakumeen kontra gizonen egiten duten indarkeria. Modu asko hartzen du indarkeria horrek: fisikoa, psikikoa, soziala edo ekonomikoa. Mehatxuak, bortxak, tratu txarrak, erasoak, jazarpena lanean, bai eta emakumeen hilketak ere, haien senarrek edo bikote-lagunek hilda.

Emakumeen kontrako indarkeria da gehien ezkatzen den krimena eta ugariena mundu osoan. Eragiten die kultura guztiei eta herrialde guztiei, jende orori eta adin guztietako jendeari.

Emakumeen kontrako indarkeriaren determinatzailea da hori sortzen duten gizonen, jeneralean, indarrez dihardutela familiaren eremuan bakarrik eta emakumeekin izandako harreman pertsonaletan, lantokietan, ikastegietan, kalean eta abarretan. Eta hori gertatzen da ez dagoelako berdintasunik gizon eta emakumeen artean bizitzaren eremu guztietan. Tratu txarren eragile diren gizonen kontzientzia matxistaren ondorioz gertatzen da hori; izan ere, haien emazte edo lagunengan ikusten dute euren jabetzako dela eta haiekin nahi dutena eta gehiago egin dezaketela. Bestela, zergatik ez dute zakar jokatzeko lan-kideekin, auzokoeekin edo ingurukoe-kin? Zergatik gertatzen dira emakumeen senarrek eragindako hilketak asko eta asko emakume horiek erabakitzen dutenean senarren ondorengo joatea edo beren kontura bizitzen jartzea?

Adierazi gura dugu gure konpromiso aktiboa, emakumeen kontrako indarkeria guztiak errotik kentzeko.

Aldaketa handia izan behar da emakumeen eta gizonen arteko ardurak eta zereginak banatzeko orduan: etxea emakumeentzat eta kalea eta lanbidea gizonentzat, eta zatiketa horrek sortzen ditu portaera, balore eta jarrera guztiz diskriminaziozkoak.

Hezi beharra dugu pertsonen arteko beste harreman kontzeptu batzuetan, non-eta indarkeriak ez daukan lekurik liskar pertsonalak eta familiarrak konpontzeko.

Beharrezkoa da esku-hartze PUBLIKOA eta erakundeena, errealitate soziala aldatzeko; berdintasuneko politikak behar dira, emakumeek gizartean bete-bete parte har dezaten lortzeko, eta emakumeen bizi kalitatea hobetu behar da eta horrela aurrera egin emakumeen eta gizonen arteko berdintasuneko harremanetan.

Dei egiten diogu Arrasate herriari, herriko plaza nagusian egingo den konzentrazioan parte hartu dezan azaroaren 25ean, iluntzeko 20:00etan.

CCOO, ELA, ESK, LAB ETA UGT
Arrasate

Ordu erdi eta metro karratu erdi

Aurreko asteko GOIENKARIAren, Etxe-Arategi bere burua Ezker Abertzalean kokatzen duten guztiei bereziki zuzendutako gutuna irakurri nuen, arretaz irakurri ere, nire burua ezkeriar eta abertzaletzat baitaukat.

Idatzian, bakoitzak ditugun lehen-tasunei buruzko gogoeta planteatzen zen, erreflexio horren ondorio bizi garen gizarte indibidualista honetan *Lehenengo ni, gero ni eta azkena... ni ere* izaten dela, inorentzako asti barik ibiltzen garela, guretzat behar dugula denbora guztia. Presoek bitartean, zenbat malko eman dioten herriari? Zenbat jipoi jasaten duten? Familiarrek zenbat kilometro? Zenbat istripu? Osora, zenbat ordu erdi?... eta guk?

Ariketa polita iruditu zait, alde bate-tik gizarte sistema honek indibidualis-mora eramaten gaituen ideiarekin bat nagoelako. Bestetik, hausnarketa nire buruari egin diodanean, neu ere indibidualismo horretatik ez nagoela ohar-tu naizelako (uste nuenaren kontra!). Bigarren honek harritu eta hunkitu egin nau, edo hunkitu baino gehiago, izorratu. Beti uste izan dudalako etorkizuna guk garatu behar dugula, gure eskuetan dagoela, eta denok daukagula zer esan, eta zer egin, lortu nahi ditugun aldarri-kapenak burutzeko bidean. Konturatu naiz, ordea, ni ere askotan nagikerian eta utzikerian jausten naizela, aitzakia merkeak topatzen ditudala ezkeriar eta abertzale izatearen konpromiso txiki horiek alboratzeko.

Gauzak horrela, edozein hausnarketa prozesutan bezala, hobetzeko, ondorioak landu eta aurrerapausoak eman beharrean nagoela uste dut:

Nire lehenengo ordu erdia gutun hau idazten ematea erabaki nuen, ez da erreza izan, ez pentsa.

Nire bigarren ordu erdia, balkoian oraindik erabiltzeke daukadan metro karratu horretan, *Euskal Presoak Euskal Herrira* dioen banderola jartzeko emango dut.

Gutxienez ordu erdiz, asteartero eta hileroko azken ostiralean egiten diren kontzentrazioetan agertuz, familiarren aldarrikapenekin bat egitea ere erabaki dut, aldarrikapen horiek nireak ere badirelako!

Ez da asko, baina Euskal Presoen giza eskubideen alde den orok beste honenbeste egiten badu ez da gutxi izango, bakoitzak egin dezala bere gogoeta. Horrela errazago lortuko dugu batzuentzat barregarri dirudien herriko plaza eta inguruak betetzeko ametsa, horrela errazago lortuko dugu Euskal Presoak Euskal Herrira ekartzea!

JON LOPEZ SANTAMARIA
Bergara

Goienkaria
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ERREDAKTORE BURUA
Leire Kortabarria
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkoroberebar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga,
Natali Martinez, Izaskun Bolinaga,
Ziortza Martin, Imanol Elortza
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

Aurreikuspen / Pentsio Planak | EUSKADIKO KUTXA

Etorkizunerako aholkularitza eta gainera opari bat.

Aholkulari pertsonal batek, zure beharrak eta egoera aztertu ondoren, plan ugariren artean ondoen datorkizuna aukeratzen lagunduko dizu, bide batez, onura fiskalik handiena lortu dezazun.

Euskadiko Kutxan etorkizuna argi baino argiago ikusten lagunduko dizugu.

Aurreikuspen / Pentsio Plan Klasikoa.
Aurreikuspen / Pentsio Plan Mistoa.
Aurreikuspen / Pentsio Plan Aldakorra.
Aurreikuspen Plan Monetarioa.
Aurreikuspen Plan Dinamikoa.
Garantizado I Aurreikuspen Plana.
Garantizado II Aurreikuspen Plana.

Eta gainera, urte bakoitzeko ekarpen guztiak kontuan hartuta, opari bat ere jaso dezakezu.

Euskadiko Pentsioak BGAE Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitatearen Aurreikuspen Planak.

Bide-erakuslea aurkitu dut nire etorkizunerako.


JUANITO OIARZABAL
ALPINISTA



2.500 €
ERREMINTADUN
LINTERNA



2.500 €
ZUKUGAILUA




5.000 €
FRIJIGAILU ELEKTRIKOA



5.000 €
KABLERIK GABEKO
ZULATZEKO MAKINA



8.000 €
MAHAI TRESNAK



15.000 €
14"KO TELEBISTA

Zurekin elkarlanean


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



Ezkerretik eskumara Iban Silbar, Andoni Ormazabal eta Josu Juan, Monterronen.

XABIER URTZELAI

Hasi da lanean Gasherbrum II helburu duen espedizioa

Lehenengo zailtasuna laguntza ekonomikoa lortzea izango da

XABIER URTZELAI

Josu Juan Llodio eta Iban Silbar (Arrasate), Mikel Sasiain (Aretxabaleta) eta Andoni Ormazabal eta Oier Plazaola (Urretxu) boskoteak osatzen du datorren urteko uztailean Karakorumerako bidea hartuko duen espedizioa. Prestaketa lanetan harrapatu ditugu.

Orain dela bi urte ezagutu zuten elkar bost lagun horiek, Perun. Josu Juan, Iban Silbar eta Mikel Sasiain Andeetako hainbat mendi tontor egiteko asmoz joan ziren Hego Amerikara, eta hantxe elkartu ziren Urretxuko lagunekin. Orduan, besteak beste, Alpamayo, Artesonraju, Esfinge horma eta Chopicalqui mendiak igo zituzten, baina ez elkarrekin. Eta ibarrera itzultzerakoan hasi ziren zortzimilakoren bat igotzeko ideari bueltak eta bueltak ematen.

HASIERAN, NANGA PARBAT

Iban Silbarrek eta Josu Juanek esan digute hasieran Nanga Parbat zeukatela helburu: "Geure artean hasi ginen mendi horretara joateko berbetan, eta Mikel Sasiainen bitartez animatu ziren Andoni eta Oier. Kontua da mendi konkretu batzuetara joateko hilabete jakin batzuk daudela, ezin da edozein aukeratu. Eta horrekin batera, badakigu Alpetan edo Andeetan dauden 4.000 edo 6.000 metroko mendietan zelan moldatzen garen. Baina sekula ere ez gara 8.000 metroko mendi batean egon, eta jen-

dearen gomendioei kasu eginez erabaki genuen lehenengo saiakera G-II mendian egitea. Dena dela, pena ere ematen digu, Nanga Parbatek denetik duelako; besteak beste, teknikoki oso mendi erakargarria da".

NONDIK IGO ERABAKI BARIK

Zein mendi igo gura duten erabakita, mendia nondik igo da hartu beharreko hurrengo erabakia: "Seguruenik bide arruntan gora egingo dugu, baina oraindik ez dugu bide frantsesa baztertu". Bide arruntetik joanez gero, lehenengo kanpamendua 5.985 metrora jarriko dute eta bigarren kanpamendua, *Banana Camp* izena duena, 6.580 metrora. Hara iristeko, batez beste 45 graduko malda duen glaziarrean

gora egin beharko dute. Elurjauzi arriskua egoten da han; argi ibili behar da. Hirugarren kanpamendua, *Ridge Camp* deritzona, 7.000 metrora dago. Handik, hego-mendebaldeko ertzean gora harrizko piramidearen azpiraino: 7.300-7.500 metro artean. Inguru hori zein egoeratan dagoen ikusita erabaki beharko dute dendak gorago edo beherago jarri. Eta handik aurrera, igorako malda gogorrenak, ipar mendebaldeko ertzetik 8.035 metrora dagoen tontorreraino.

AHOLKU BILA

Esan bezala, baina, baliteke bide frantsesa aukeratzea. Horretarako, inguruko mendizaleekin egon gura dute, aholkua eskatzeko; ez dute urrun joan behar.

Atez ate, laguntza eske

Horrelako ehunka bidaia egin dituzte mendizale euskaldunek, eta ondo dakigu ez direla batere merkeak. Hala, kontuak egiten hasi eta espedizioa lagunek aurreikusten dute gutxienez 30.000 euro beharko dituztela. Materiala lortzeko lanean hasi dira, eta baita inguruko enpresetara euren proiektua aurkezten ere, laguntza txikiena ere eskertzeko izango delako. Diru kontuetan hasita, hemen aurrerapen txiki bat: logistika eta oinarrizko kanpamendurako 16.000 euro inguru; mendira igotzeko baimena 4.000 euro, eta beste horrenbeste Islamabaderako bidaia. Gastu horiei gehitu behar zaizkie bitartekarien soldata, goi-mendiko materiala...

Horrekin batera, eurek ere hainbat egitasmo dituzte esku artean. Besteak beste, aurki izango dira espedizioaren gaineko kamisetak eta metxeroak salgai.

Kirolabur

MENDIKO BIZIKLETA/BI IRTEERA ASTEBURUAN

Besaide MTB taldearen eskutik 27 lagun joango dira asteburuan Bardeetara mendiko bizikletan ibiltzera. 08:00etan irtengo dira bihar Garibaiko geltokitik (Arrasate), eta domekan itzuliko dira, 17:00ak aldera. Han, Virgen del Yugoko aterpetxean igaroko dute gaua. Antolatzaileek 40-50 kilometroko bi irteera aurreikusi dituzte. Ez da, baina, mendiko bizikletekin egingo duten irteera bakarra izango. Elgetan, aurreko irteerak izan zuen arrakasta ikusita, domekarako beste irteera bat gertatu dute. Oraingoan Uribarri Ganboa aldera egingo dute, Arlaban igota.

PILOTA/ERRETRATU ZAHARREN ERAKUSKETA

Abenduaren 10era arte egongo da ikusgai *Toribio Agirre, pilota-zale bat kameraren atzean* izeneko argazki erakusteka, Bergaran. Aroztegi Aretoan dago lan hori, eta Udal pilotalekuaren historian izandako pasarteak islatzen ditu. 1936garren urtean hasi eta 1969an hil zen arte milaka argazki egin zituen Toribio Jauregi bergararrak, eta horietako 1.200 erretratu pilotaren gainekoak dira. Urte hauetan guztietan Bixente Jauregi semeak gorde ditu aitaren argazkiak, eta orain daude lehenengoz argazki horiek jende aurrean.

ESAIT/KANPAINAREN AURKEZPENA, GAUR

Euskal Selektzio nazionalaren alde lanean dabilen ESAIT erakundeak kirolari federatuen eta kirol elkarten babesa lortu gura du. Horretarako, ibarrean sinadurak batzeko lantaldea sortu dute, eta gaur arratsaldean egingo dute kanpainaren aurkezpena Arrasateko Monterron kultura etxean (17:30). Aurkezpenean esku hartuko dute ESAITeko Debagoieneko eragileek, eta hainbat kirolari ezagunek. Besteak beste, Jon Odriozola, Markel Irizar, Iban Velasco, Ritxar Fernandez, Joseba Larrinaga, Iratxe Aranburu, Aritz Berraondo eta Aitor Elkoro izango dira Monterronen. Argazkian, ESAITeko kideak Eskoriatzan urrian egin zuten mendiko bizikleta irteeran, sinadurak batzen.



FUTBOLA/ATZEALDEAN DABILTZANEN KONTRA

Oraingo asteburuan, Preferentean dabilzan Mondrak, Aretxabaletak eta Aloña Mendik atzealdean dabilzananen kontra jokatuko dute. UDAK ezin du domekako hiru puntuak ihes egiten utzi. Etxean jokatuta, bi norgehiagoka baino irabazi ez dituen Irun ez da kontrario (domekan, 16:30ean). Mondrak ere aukera ona izango du, nahiz eta etxetik kanpo jokatu, azkeneko postuan dagoen Allerru izango dute-eta aurrean. Hori bai, Gordobilen mutilek ez dute ezuste gehiago gura (domekan, 11:30ean). Aloña Mendik, berriz, hiru zeingehiagoka irabazi dituen Hernani hartuko du Azkoagainen (domekan, 15:30ean).

MENDIKO ETA ESKIKO AZOKA/MATERIALA BATZEN

Dagoeneko gain-gainean dago eski denboraldia. Eta mendian kirola behar den materialarekin egiteko Bergarako Pol-Pol Mendi Elkartek datorren azaroaren 28an irekiko ditu mendiko eta eskiko azokaren ateak. Hala, material berria erosteko aurrekontua ez duenak aukera ederra izango du. Orain, azokan salgai jartzeko materiala batzen dabilta, eta jakin, saltzeko moduko materiala duenak azaroaren 24ra arte entregatu ahal izango dituela gauzak. Astelehenetik ostegunera egoten dira horretan, 19:00etatik 20:30ak arte.

Kirol politika hizpide denean

Elgetan egingo dituzte, datorren eguenean, kirol politikari buruzko X. topaketak

Kirol politikari buruzko jardunaldiak egingo dituzte datorren eguenean, azaroak 24, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian.

Kirol politikari buruz egiten dituzten 10. topaketak izango dira Elgetako horiek. Hantxe egongo dira, besteak beste, Patxi Basauri, Elgetako alkatea; Iñaki Ugarteburu, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kirol zuzendari nagusia; Ignacio Lakuntza, Debagoieneko Mankomunitateko presidentea; eta osasun, enpresa eta kirol arloko hainbat aditu.

OSASUN ETA KIROL SINERGIAK

Elgetako topaketa horiek bi gai nagusi izango dituzte: kirola eta osasuna. Jardunaldietan hitz egingo dute osasun eta kirol zerbitzuen arteko sinergieaz.

Osasuna eta kirola izango dira, beraz, kirol politikaren inguruko gai nagusiak. Adibidez hitz egingo dute osasun eta integratzioko kirolari buruz, eta esperientziak eta proiektuak komentatuko eta aztertuko dituzte. Ari-keta fisikoaren eta elikaduraren bitartez osasuna indartzeko eta



Osasuna, lana eta kirola izango dituzte hizpide Elgetako topaketan.

**Osasun eta kirol
adituak datoz**

**Gura duenak eman
dezake izena**

patologia kronikoetan esku hartzeko programak ere aipatuko dituzte. Gasteizko ereduak hartuko dute horretaz hitz egiteko.

Enpresetan zer egin daitekeen ere aztertuko dute; enpresan osasuna bultzatzeko programak zeintzuk diren jakingo dute jardunaldietan parte hartzen dutenek; adibidez, Athlon enpresak egiten duen lana. Izan ere, frogatuta dago nork bere lanean dituen emaitzen eta kirolaren artean lotura zuzenak daukela.

IZENA NOLA EMAN

Hitzaldiez gain, mahai inguru bat ere egingo dute parte-hartzaileek. Gaia izango da Euskadin baliagarri diren lankidetzarako eremuak eta ereduak.

Kirol politikari buruzko jardunaldi edo topaketa horietara joan gura duenak datorren astelehena, azaroak 21, baino lehen eman behar du izena 943 77 91 63 telefonoan. Jardunaldiak 09:00etan hasiko dira eta eguerdia arte iraungo dute. Parte hartzeko 30 euro, bazkaria barne, ordaindu behar dira Kutxan.

KIROL ZERBITZUEN BERRIAK JASOTZEKO:

Antzuola 943 76 62 46

Aretxabaleta 943 71 26 28

Arrasate 943 77 16 77

Bergara 943 77 91 67

Elgeta 943 76 80 22

Eskoriatza 943 71 53 28

Oñati 943 71 63 75



DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA
kirol zerbitzua

Edozein premiatarako:

- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Ekografiak (4D)
- Titietako gaixotasunak
- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria

Zure zerbitzura:

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Ainhoa Larrea
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi
- Mikel Arroyo

CG

CONSULTORIO GINECOLOGICO



Policlínica Gipuzkoa

ARRASATE

Zerkaosteta 17
943 79 20 18

Donostia: 943 30 82 08

Eibar: 943 12 10 2

Irun: 943 61 78 88





Añai erretegia

- Eskaintza** **Bardeaga 32 / ARAMAIO**
945 44 51 01
- Bataio eta jaunartzeak
 - Kintadak
 - Karta
- Berezitasunak**
- Arraina eta okela parrillan
 - Etxeko postreak

Egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan zabalik



Baster-Alde

- Eskaintza** **Galartza auzoa / ARETXABALETA**
943 79 24 58
- Menua eta karta
 - Ezkontzak
 - Jangela: 160 lagunendako
 - Jaunartze eta bataioak
 - Kintadak
 - Terraza
 - Aparkalekua
- Astelehenetan itxita



Dragon Oriental

- Araba etorbidea 3 (Super BIM ondoan) / ARRASATE**
943 79 85 33
- Txinatar jatetxea**
- Eskaintza**
- 140 lagunendako jangela
 - Aparkaleku ezin hobea
 - Janaria etxera eramaten dizugu
- Eguneko menua eta karta



Eguzkitza erretegia

- Eskaintza** **Arane Erreka 30 / BERGARA**
943 76 97 01
- Eguneko menua
 - Karta
 - Plater konbinatuak
 - Ogitartekoak
- Berezitasunak**
- Behi txuleta
 - Bakailaua
- Martitzenetan itxita



Gure Ametsa jatetxea

- LEINTZ GATZAGA**
943 71 49 52
- Eskaintza**
- Ezkontzak
 - Jaunartzeak eta bataioak
 - Hiru jangela
 - Aparkaleku handia
 - Umeendako jolaslekua
- Astelehenetan itxita




Unzueta jatetxea

- Eskaintza** **Zabola auzoa / ARAMAIO**
945 44 50 95
- Eguneko menua
 - Karta
 - Bataio eta jaunartzeak
 - Lagun afariak
- Berezitasunak**
- Parrilla: okela eta arraina
 - Etxeko postreak
- Egunero zabalik



Zotz jatetxea

- Eskaintza** **Zubillaga auzoa 1 / OÑATI**
943 78 35 45
- Eguneko menua
 - Ogitartekoak
 - Hamarretakoak
- Berezitasunak**
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan
- Igandetan itxita



Zuhaitzi jatetxea

- Eskaintza** **Espoloia 6 / BERGARA**
943 76 59 22
- Eguneko menua, aste barruan
 - Pizzak, konbinatuak eta karta egubakoitz eta zapatu gauetan
- Berezitasunak**
- Etxeko postreak

Osasuna

Egubakoitza / 2005eko azaroaren 18a / GOIENKARIAren gehigarria

Osasun hitzaren azpian hain mundu zabala dugu! Mundu horretan sartu gara gu eta hainbat gairen gaineko informazioa batu dugu datozen orrialdeotan.



Psikopedagogia

Estetika

Ariketa fisikoa

Podologia

ITZIAR UGARTE/ OPTIKARI-OPTOMETRISTA

“Diseinuzko betaurrekoetan espezializatu gara eta oso harrera ona izan dugu”

Diseinuzko denda, diseinuzko betaurrekoak eta puntako teknologia aurkitu ditugu Itziar Ugarte optikan, Arrasaten. Azkeneko diseinu, azterketa eta dendan dituzten hainbat produkturen gainean jardun dugu Itziarrekin. Begietako hainbat gaitzen gaineko informazioa ere eman digu, edozeinek erraz ulertzeko moduan, gainera.

Normalean, arazoren bat dugunean jotzen dugu medikuarengana. Begien kasuan, baina, beste hainbat kasutan bezala, errebisioak egitea komeni izaten da, ezta?

Orokorrean, denoi komeni zaigu urtean behin, gutxienez, azterketa egitea. Aparteko arazorik ez badaukagu, nahikoa da optika batera jotzarekin; optiketan azterketa optometriko sakona egiten dugu eta arazoren bat ikusten badugu, oftalmologoarengana bideratzen dugu jendea.

Azterketa horietan, besteak beste, begietako tentsioa hartuko diguzue. Zer da begietako tentsioa eta zelan hartzen duzue?

Begiaren barnealdeko presioa neurtzen dugu; presio hori altua denean, glaukoma gaitotasuna sortzen da eta nerbio optikoa kalte-tzen da. Horrek ondorio larriak ekar ditzake, hortaz, oso garrantzitsua da tentsioa neurtzea. Horretarako makina berezi bat daukagu gure optikan.

“Optika izateaz gain, audiometria zentroa ere bada gurea; entzumena neurtzeko kabina intsonorizatua daukagu”

Eski denboraldia gainean dugu. Zer hartu behar dugu kontuan eguzkitarako betaurrekoak aukeratzekoan?


Filtro ultramorea dutelako bermea eman behar digute; horregatik, garrantzitsua da profesionalengana jotzea.

Bestalde, aipatzekoa da kirola egitera-koan graduatutako betaurrekoak behar dituztenendako eskaintza zabala daukagula; adibidez, eskiatzeko maskarak, txirindulari-tzarako eta igeriketarako betaurrekoak, saskibaloirako eta futbolerako...

Aurten begi nekatuen urtea dela entzun dugu. Zer da hori?

Presbizia ere esaten zaio. Gertutik lan egiteko begiaren ahalmena txikitzen du. Begiek esfortzu larregi egin ez dezaten, nahikoa da betaurreko batzuk erabiltzea.

Zertan bereizten zarete beste optika batzuetatik?



Itziar Ugarte bere lantokian.

Optika izateaz gain, audiometria zentroa ere bada gurea; kabina intsonorizatua daukagu, entzumena neurtzeko. Bestalde, espezializatu gara diseinuzko betaurrekoetan eta oso harrera ona izan dugu; ibarreko jendea oso ausarta da.

Betaurrekoen gain, kalitatezko aparatu optikoen eskaintza zabala daukagu: prisma-tikoak, teleskopioak, lupak... Termometro eta altimetroak ere badauzkagu. Gabonei begira, berriz, aparteko produktuak ekarriko ditugu. Suunto markako erloju bereziak, hain justu.



ITZIAR UGARTE

Optika

Audiometria

Betaurrekoetan azken joerak

Arrasate pasealekua 35
ARRASATE
943 08 26 87

Eskola Politeknikoaren ondoan

Azken teknologia ikusmen eta entzumen aparatuetan



Ikusmen aparatua

- Proba-kutxa eta foropteroa
- Errefraktometroa eta erretinoskopioa
- Optotipoa
- Frontofokometroa

Erraztasunak ordaintzeko orduan 6 hilabetez interes barik

- Tonometroa
- Oftalmometroa eta kerometroa
- Zirriztu-lanpara



Entzumen kabina intsonorizatua

amplifon audifonoak belarritarako tapoiak

FREMAP aseguruarekin hitzarmenak

+VISION
GRUPO OPTICO



■ PSIKOPEDAGOGIA

Zailtasunak dituzten umeei arreta goiztiarra eskaintzea

AINTZANE IRIZAR

Ikasteko zailtasunak dituzten umeendako tratamendua da arreta edo estimulazio goiztiarra. Arrazoi bat edo beste medio, ikasketa prozesuan euren adineko ume gehienak baino atzerago doazen umeei zuzenduta dago psikopedagogia zerbitzu hau.

Bizitzako lehendabiziko bost urteetan ume normalek trebetasun ugari menderatzen dituzte: oinez ikasten dute, berba egiten ere bai, jaten, janzten, esfinterra kontrolatzen, gizartean independente izaten ikasten dute, neurri baten, bakarrik moldatzen. Trebetasun horietako asko ikasten dituzte berez; hau da, ez dira apropos irakasten. Ikasteko zailtasunak dituzten umeei, baina, irakatsi egin behar izaten zaizkie gainerakoek irakaskuntza berezi barik ikasten dituzten gauzak.

ARRETA GOIZTIARRAREN GARRANTZIA
Egoera horretan dauden umeei, hau da, ikasketa prozesuan zailtasuna dutenek, adituen lagun-



Irakaskuntza berezia behar izaten dute ume batzuek.

tasuna behar izaten dute. Arreta edo estimulazio goiztiarra deitzen den tratamendua ezartzen zaie. Horrela, teknika psikoterapeutikoen bitartez, arazoei aurre hartu, murriztu edo ezeztatu egiten dira.

Arreta goiztiarraren helburuak dira, besteak beste, honako hauek: umearen garapenerako ahalmen ahalik eta handiena lortzea, garapenerako atzerapenei aurre hartzea eta gurasoei eta familiei informazioa eta laguntasuna ematea.

Hainbat arrazoi egon daitezke ume batek atzerapenak izateko bere garapenean eta ikasketetan; gutxitasun psikiko, fisiko

edo zentzumenezko gutxitasunen bat duten umeei zuzenduta dago tratamendu hori.

Arreta goiztiarrean garapeneraren alderdi guztiak lantzen dituzte psikologo, pedagogo, logopeda eta beharrezko aditu guztiek osatutako lantaldean. Lantzen dituzte esparru kognitiboa, mugimenduak, hizkuntza eta komunikazioaren esparrua eta autonomiarena.

Azkenik, aipatzekoa da arreta goiztiarra behar duten umeendako dirulaguntzak ematen dituztela erakundeek; horretarako, Udaleko Gizarte Ongizateko arduradunarengana jotzea da egokiena.

ADITU ETA GURASOEN ARTEKO ELKARLANA

Umearen garapenean aurrerapausoak ikusteko, oso garrantzitsua da psikopedagogian adituak direnek elkarlanean jardutea bai gurasoekin, bai umearen irakasleekin, bai pediatarrekin eta bai umearen garapenean parte har dezaken edozeinekin. Ez dauka zentzurik horrelako kasu baten bakoitzak bere aldetik jarduteak. Batak bestea zertan dabilen jakitea eta denek norabide berean lan egitea ezinbestekoa da. Gurasoen kasuan, esaterako, adituen laguntasun handia behar izaten dute; ez umea zelan hezi ikasteko bakarrik, baita, euren informaziorako eta ongizaterako ere. Izan ere, hainbat kasutan, Down sindromearen kasuan, esaterako, hasierak oso gogorrak izaten dira eta psikopedagogia zentroaren lana ez da mugatzen umea tratatzera bakarrik.

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

- Diagnostikoa - Orientazioa
- Estimulazio goiztiarra
- Psikologia klinikoa - Terapiak
- Tratu txarrak jasotako laguntza psikologikoa (fisikoak, psikikoak)
- Mota guztietako eskola arazoak
- Psikomotrizitatea eta logopedia
- Peritaje judizialak
- Ikasketa teknikak eta ohiturak

Inazio Zuloaga 10 • 20500 ARRASATE • Tel.: 943 79 48 77/ 675 705 735 • psikopedagogiko_arrasate@euskalnet.net

FISIOTERAPIA ZENTROA



- Drainatze linfatikoa
- Presoterapia
- Masajeak
- Bihurrituak
- Errehabilitazioa
- Osteopatia
- Etxez etxeko zerbitzua

Belorrieta auzoa 5, ARETXABALETA
Tel.: 943 08 21 89



Fisioterapeutak:
Miren Maiztegi • Nagore Llodio

UDALAITZ MEDIKU ZENTROA

Irudi edo erradiologia bidezko diagnostikoan teknika ugari ditugu

Gaur egun, medikuaren profesionaltasunarekin batera, gero eta garrantzi handiagoa du gaixotasunak diagnostikatzeko orduan, puntako teknologiak. X izpiak, ultrasoinuak, erresonantzia magnetikoa... dira erabiltzen diren teknika garrantzitsuenak.

Medikuntzan garrantzi handia izan du erradiazio ionizanteen aplikazioak, hau da, X izpiek; anatomia normala eta patologikoa hobeto ezagutzen lagundu digu.

Materia biziarengan eragin biologiko jakin batzuk dituzte erradiazio ionizanteek. Horregatik, dosi baxuetan eta arrazoitutako kasuetan erabili behar dira X izpiak.

X izpiak erabiltzen dituzten hainbat teknika daude. Batetik, X izpi konbentzionalak ditugu; teknika horrekin gehien egiten diren esplorazioak honakoak dira: garezurra, bularraldea, goiko eta beheko gorputz-adarrak, bizkarrezurra...

Ortopantomografia da X izpiak erabiltzen dituen beste azterketa bat; ahoko egitura guztiak erakusten dituen erredioografia panoramikoa da.

Mamografia, bestalde, bularreko erradiografia bat da; medikuak topatu ezin izan dituen tumore txikiak ikusteko balio du.

TAC-Scanner eta Dentascan edo hortetako eskanerrak ere hortxe ditugu, X izpiak



UDALAITZ

Eskanerrak ordenadorez prozesatzen ditu organismo barruko irudiak.

erabiltzen dituzte horretarako ere. Tac-Scanner deitzen diotenak ordenadorez prozesatzen ditu irudiak. Hainbat organoren irudi oso zehatzak lortzen ditugu; horrela, diagnostiko zehatzak egiteko aukera ere ematen du. Hortzetako Tac deritzon proba dugu, bestetik.

Densitometria izeneko probak ere X izpiak erabiltzen ditu. Deskaltifikazio arazoak daudenean erabiltzen da Dentsiometria

proba eta hezurretako kaltzioa neurtzeko erabiltzen da.

X izpiez gain, bestelako teknologiak erabiltzen dituzten teknikak edo probak ere baditugu, ultrasoinuak erabiltzen dituzten teknikak, esaterako. Hor ditugu hain ezaugarriak egin diren ekografiak. Oso azkar gartu den teknika da ekografia, eta azterketa ugari egin daitezke ekografiekin, gaixoa-erendako inolako arriskurik gabe.

X izpiak eta ultrasoinuak erabiltzen dituzten probak eta erresonantzia magnetikoak dituzte Udalaitzen

Asko erabiltzen den beste teknika bat da Erresonantzia Magnetiko Nuklearra. 1980ko hamarkadan sortu zen teknika hori. Beste edozein proba erradiologikok baino hobeto bereizten ditu gorputzeko egitura anatomikoak erresonantzia magnetikoak. Kanpo elektromagnetiko baten jarduerak organismoa estimulatzen du, eta horri esker lortzen dira irudiak. Erresonantzia magnetikoek hezurak zeharkatzen dituzte; horrela, ehun bigunak oso ondo ikusteko aukera ematen digu.

Proba erradiologiko hauetako guztiak bata bestearen osagarri dira; askotan, gaixotasun jakin bat zehazteko bidean, proba bat baino gehiago egiten digute medikuek; izan ere, aztertu beharreko inguruaren arabera, teknika batzuk besteak baino egokiagoak dira. Irudi edo erradiologia bidezko diagnostikoa medikuntzaren beste espezialitate bat da, eta beste proba kliniko batzuekin batera, gaixotasun jakin bat diagnostikatzeko balio du.



centro médico
UDALAITZ

- Erradiologia
- Scanner-TAC

- Ekografia
- Análisi klinikoak

- Mamografia
- Hortz-TAC

- Azterketa medikoak
- Erizaintza

- Erresonantzia magnetikoa
- Hezurren densitometria

MEDIKUAK

■ JUAN TORRES
TXEMA ALUSTIZA
Erradiologia.

■ ENCARNA IRIZAR UMEREZ
Azterketa medikoak.

■ ALBERTO LLUCH
Urologia.

■ JOSE RAMON GALARZA,
ARSENIO DIEGO
Traumatologia.

■ FATHY
EYANA
Barne Medikuntza.

■ JULIO URUEÑA,
JULIO GONZALEZ
Ginekologia.

■ ANGEL LAFUENTE,
ALBERTO LEGORBURU
Gorputzeko minaren balorazioa.

■ CARMEN JACA
Neumologia.

■ GONZALO SERRANO
Dermatologia.

■ JUAN JOSE MARTINEZ
RODRIGUEZ
Kirurgia orokorra
eta digestio aparatua.- Kolonoskopia.

■ AFRIKA HALCON
Kirurgia baskularra.- Flebologia.

■ GUILLERMO LARRAÑAGA
Bihotz-hodietako kirurgia.

ORDUTEGIA


Astelehenetik ostiralera.
7:30etik 12:30era.
14:30etik 19:30era.

Ferrerias Kalea 56 • ARRASATE
Nafarroako etorbidea 3 • ARRASATE

Tel.: 943 79 44 22
Tel. eta faxa: 943 79 44 56
inform@cmudalaitz.com

ERRESONANTZIA MAGNETIKOA

IREKIA



■ ESTETIKA ETA AZALA

Eguzkiak neguan ere kalte egin diezairoke azalari

AINTZANE IRIZAR

Udako oporren atarian, ohikoa izaten da komunikabideetan eguzkiaren arriskuen gainean informazioa ematea. Baina neguan ere badiugu arrisku horiek.

Orain ez daukagu hondartzara eguzkia hartzera joateko girorik, baina neguan ere egoten gara eguzkitan. Gertatzen dena da, espresuki eguzkia hartzera joaten ez garenez, ez dugula udan adina kontu izaten. Azala babesten jarraitu behar dugu, bada, neguan ere; mendira joaten garenean, esaterako.

Bestalde, eski denboraldia ere gainean daukagu eta asko izaten dira eskiatzetik erredurekin itzultzen direnak. Badirudi jendea nahiko kontzientziatuta dagoela

udan, hondartzara joaten denean edo eguzkia hartzen jartzen denean, babesteko krema eman behar duela. Eskiatzera joaten direnen artean, baina, oraindik ere asko dira azala babesteko konturik hartzen ez dutenak.

Egokiena da adituengana jotzea; eurek aholkatuko digute azala nola zaindu

Eskiatzera irten baino 45 bat minutu lehenago eman behar dugu krema

AZALA ZAINTEKO AHOLOKU BATZUK
Azala babesteko krema ematea beharrezkoa da eskiatzera irten aurretik; 45 bat minutu lehenago eman behar dugu krema.

Krema aukeratzea ere oso garrantzitsua da; egokiena da estetika zentro batera edo dermatologoarengana jotzea eta berak esango digu, daukagun azal motaren arabera, zer krema eta zer babes maila komeni zaitgun. Horixe da bide egokiena.

Garrantzitsua da gaztetatik, edo hobeto, umetatik, ondo zaintzea azala. Seguru, askotan entzun duzuela esaten azalak memoria daukala; horregatik, eguzkiaren erredura batek, epe motzera bakarrik ez, epe luzera ere bere ondorioak izaten ditu.

Inor beldurtzerik ez genuke nahi, baina esan beharra dago eguzkia gehiegi eta gaizki hartzeak azaleko minbiziarekin izan dezakeela harremanik.



Mendian eta, bereziki, elurretan ibiltzeko, azala ondo babestu beharra dago.



AGIRRE
HORTZ KLINIKA

Nagore eta Alaitz Agirre odontologoak,
Gotzone Arkarazo eta Silvia Romero laguntzaileak



- Odontologia orokorra
- Periodontzia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Implanteak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

Ibargarai 9, 1-B. BERGARA
Tel.: 943 76 00 23
09:00-13:00 eta 17:00-21:00

RPS: 139/01



■ FISIOTERAPIA

Ariketa eta postura egokiak prebentzioaren oinarriak

AINTZANE IRIZAR

Ariketa fisikoaren garrantziaz sarri entzun dugu; garrantzia dauka gorputz liraina izan dezagun, baina, hori baino askoz ere garrantzitsuagoa dena, gorputz osasuntsua izan dezagun. Prebentzioari garrantzi handiagoa eman behar diogu.

Fisioterapiari adituak direnek inork baino hobeto dakite ariketa fisiko egokia beharrezkoa dela gorputz osasuntsua izan nahi badugu; adituek prebentzioari ematen diote garrantzia, osasunaren alor guztietan bezala. Mila bider entzundako kontua den arren, adituen esanetan, prebentzioari ez diogu behar beste garrantzia ematen. Prebentzioak hainbat gauza esan nahi du: esan nahi du postura egokiak hartzea, esan nahi du ariketa fisiko egokia egitea...

POSTURA EGOKIAK

Eguneroko jarduerak egiten ditugunean, postura egokiak zeintzuk diren jakitea eta horiek praktikan jartzea ezinbestekoa



GOIENKARIA

Gihar eta hezurrei dagozkien arazoak prebenitzeko garrantzitsuena da ariketa fisiko egitea eta postura egokiak hartzea.

da gorputza ez kaltetzeko. Etxeko lanak egiten ditugunean, esaterako, oso kontuan hartzekoak dira postura horiek. Noski, ezinezkoa da guztiak azaltzea,

baina hona hemen horietako batzuk: lurretik pisua jasotzerakoan, belaunak tolestuta egingo dugu; horrela, izterretako muskuluekin egingo dugu inda-

rra eta ez dugu bizkarra minduko. Horra hor beste kasu bat: bizkarra zuzen eta eserlekuaren kontra dugula eseriko gara; horrela, gure pisu guztia ipur-

diarengan jarriko dugu eta ez bizkarreko beheko aldean.

Oso kontuan hartu beharreneko beste postura bat honakoa da: harrikoa egiterakoan edo arropa lizatzen dugunean, denbora luzea ematen dugu zutik; kasu horietan, tentsio handia sortzen da bizkarrean. Hori saihesteko, hona hemen aholku bat: kaxa edo aulki txiki baten gainean jarri hanka bat.

Orokorrean, esan behar da hanketako eta izterretako giharrek gutxiegi erabiltzen ditugula eta joera dugula beti bizkarraren indarrez laguntzeko egiten ditugun esfortzu guztiak. Saiatu behar dugu beti kontrakoa egiten.

ARIKETA FISIKOA

Ariketa fisiko egokia egitea da prebentzioaren beste alderdi garrantzitsua. Bizitza osoan zehar jarduera fisikoren bat egitea oso inportantea da. Horrek esan nahi du umeak kirola egitera bultzatu behar ditugula. Bizitzako etapa bakoitzak aktibitate ezberdin bat eskatzen du. Oro har, baina, igeriketa eta oinez ibiltzea edozeinendako moduko ariketa egokiak dira. Dena dela, bakoitzak bere gustuko jarduera topatu behar du.

CLINICA DENTAL BERGARA

FINANTZAKETA:
3 HILABETE ETA 5 URTE ARTEKOA



Odontologia orokorra

Inplanteak

Protesiak

Hortz-estetika

Periodontzia

Aseguruak


Ipresa
Sanitas
DKV/Previasa
Asisa
Azkaran
Previsora Bilbaina
Aegón
Fremap
Adeslas
Allianz
Mapre

RPS 99/94

Bidekurutzeta 36 behea. Bergara. 943 76 05 77

Floren Elortondo masajista

Dei ezazu ordua eskatzeko



Kirol masajeak eta terapeutikoak

• Errehabilitazio programak

• Luzatze ariketak

• Jarrera-tratamenduak

• Oinen erreflexologia

• Osteopatia

Basabe industrialdea D • Aretxabaleta • Tel.: 629 77 85 84

■ **PODOLOGIA**

Garatxoak orain agertzen dira

AINTZANE IRIZAR

Urteko sasoi honetan, podologoek oinazpiko garatxo (berruga) ugari ikusten dituzte euren kontsultetan. Izan ere, ohikoa da udako hilabeteetan garatxoak sortzen dituen birusa hartzea, eta garai honetan hasten dira garatxoak eurak azaleratzen.

Oinazpiko garatxoei papiloma izena ere ematen diete batzuek; horrelaxe ezagutuko dituzue, beharbada. Gorputzaren pisu osoa oinen gainean eramaten dugunez, oinazpiko garatxoak mingarriak izaten dira, askotan.

UDAN ARRISKU HANDIENA

Oinazpiko garatxoak papilomavirus izeneko birusak sortzen ditu. Hezetasunak eta berotasunak azaleko poroak zabaltzea eragiten du; horrela, birusa errazago sartzen da azaletik barrura. Horregatik guztiagatik, kutsapen kasu gehienak udan gertatzen dira. Udan kutsatutako pertsona gehienek, berriz, urteko sasoi honetan jotzen dute medikuarengana edo podologoarengana.

Izan ere, birusak aste batzuk behar ditu inkubatzeko. Dena dela, 20 hilabete ere eman ditzake inkubatzeko; horrenbestez, edozein momentutan azal daitezke garatxoak.

Esan bezala, hezetasuna baldintza ezin hobea da oinazpiko garatxoak kutsatzeko; hala, kutsapenerako toki ezin hobekak dira igerilekuak, hondartza, dutxak, aldagelak... Horregatik, oso garrantzitsua da horrelako tokietara joaten garenean kontuz ibiltzea; txankletak beti erabili behar ditugu.

Hezetasuna eta berotasunarekin birusa errazago sartzen da poroetatik barrura

Kasu batzuetan, kirurgiara jo behar izaten da eta garatxoak osorik ateratzen da

SENDATZEKO BIDEA

Garatxoak dugula uste dugun momentuan, oso garrantzitsua da podologoarengana jotzea. Hark baieztatuko digu daukaguna papiloma den edo ez, eta garatxoak izatekotan, lehenbailehen tratamenduarekin hastea inportantea da. Ez da birus arriskutsua, baina zenbat eta denbora luzeago pasatu, orduan eta gehiago kostatuko zaigu sendatzea. Gainera, denborarekin minkorrerago bihurtzen da garatxoak.

Gaur egun, podologoek tratamendu ugari dituzte; badaude hainbat produktu, garatxoaren gainean zuzenean emanda ehunak suntsitzen dituztenak.

Dena dela, kasu batzuetan, tratamendu horiek ez dira nahikoa izaten, eta kirurgiara jo behar izaten da; teknika erraz bati esker, garatxo oso-osorik ateratzen da, sustraitik, eta zuloa dagoenetan lagatzen da, berez senda dadin.

Bukatzeke, pare bat datu: normalena da 5 eta 20 urte bitartean kutsatzea papilomavirus birusarekin, nahiz eta zaharragoetan ere gertatzen diren kasuak. Horra hor beste datu bat, bitxia, benetan: ia ezinezkoa da diabetikoak eta arraza beltzeko pertsonak kutsatzea.



Oin azpiko garatxoak dugunean, lehenbailehen jo behar dugu podologoarengana.

EZ KUTSATZEKO ETA SENDATZEKO AHOLKUAK

- Oinazpiko garatxoak (baita gainerako garatxoak ere) kutsakorrek dira; gerta daiteke ingurukoei kutsatzea, baina baita geure buruari kutsatzea ere.
- Gimnasia, igerilekuetara eta horrelakoetara joaten garenean, komenigarria da txankletak erabiltzea.
- Komenigarria da, bestalde, dutxatu ondoren libiarekin garbitzea dutxa, etxeak ez kutsatzeko. Toaila norberak bakarrik erabiltzea eta oinak lehortzeko bakarrik erabiltzea ere beharrezkoa da.
- Garatxoak ondo sendatzeko, bestalde, tratamendua ondo jarraitzeaz gain, oso inportantea da garatxoak dugun zona ondo lehortzea.
- Oinetatik asko izerditzen duten pertsonen kasuan zainketa bereziak behar dira; izan ere, lehen esan dugun moduan, hezetasuna birusaren lagun ezin hobea da. Gainera, garatxoan ematen ditugun sendagaien eragina txikitzen du.

- azterketa biomekanikoak
diagnostiko informatizatuak
plantillak
silikonazko ortesiak
kirol podologia
haur podologia
oin lauak, kabuak...
- kiropodiak
gogortasunak
papilomak
mikosiak, onddoak
azazkal arazoak
- diabetikoentzako prebentzioa
• ezinduentzako etxez etxeko zerbitzua



podologia klinika
Done Larrea Etxeberria

943 79 16 45
belorrieta 10, behe. ARETHABALETA

CLINICA BAVIERA
EUROPAKO INSTITUTU OFTALMOLOGIKOA

Liderrak gara ikusmena laser bidez zuzentzen

Miopia
Hipermetropia
Astigmatismoa

Manuel Iradier 33, behea • 01005 GASTEIZ • Tel.: 945 12 36 28

“Norbera bere buruarekin gustura egotea osasuntsua da”

Kasu askotan, estetika eta osasunaren artean dagoen muga oso txikia da. Honetaz guztiaz hitz egiteko, Lirain estetika zentroko Mari Carmen

Mari Carmen, estetika edo osasuna?

Biak. Gaur egun, estetikako profesionalok etengabeko garapen prozesuan sartuta gaude, behar berrietara egokitzeko lan egiten. Pertsona baten osasun egoeran bi arlo bereiztuko nituzke, psikologikoa eta fisikoa.

Zer desberdintasun daude?

Psikologikoak, gure egoera animikoan eragina duten zerbitzuak bilzen ditu. Pertsona bat bere buruarekin gusturago sentitzen denean, honek segurtasuna ematen dio, eta orokorrean osasun egoerarentzat onuragarria izaten da.

Jarri dezakezu adibideren bat?

Mikropigmentazio teknika adibidez. Teknika honen bitartez ezpainetan, begietan edo bekainetan izan ditzakegun akatsak zuzen ditzakegu. Ordu gutxitan eta minik gabe, alda-

keta agerikoa eta iraunkorra da. Honek, norbera bere buruarekin gusturago sentitzen lagunduko digu.

Noiz sartzen gara arlo fisikoan?

Gure egoera fisikoari onura zuzena ekartzen dizkieten zerbitzu eta tratamenduak dira. Azalaren itxura eta kalitate hobekuntza, odol-zirkulazioan hobekuntza, honek dakarren bolumen jaitsierarekin, eta Lirainen dugun tresneriari esker, gorputzaren moldaketa eta koipe murrizketa, besteak beste.

Koipea aipatu duzu, gaur egun gainpisuaren inguruan asko hitz egiten da, ze irtenbide dituzue Lirainen?

Garbi izan behar dugu gainpisuaren inguruan ez dagoela miraritzko erremediorik. Lirainen, arazo hau osotasunean tratatzen dugu. Dietista bat etortzen da, bezeroak elika-

Pardorekin bildu gara. Mari Carmen Debagoieneko estetika zentrorik handieneko arduraduna da eta teknologiarik aurreratuenak erabiltzen dituzte bertan.



M. Carmen Pardo Abad Lirain Zentroko arduraduna

Lirainen merkaturiko teknikarik aurreratuenak izaten dituzue, baduzue nobedaderik?

Bai. Orain dela gutxi TMT SYSTEM, mesoterapia birtual moduan ezagutzen dena, aurkeztu genuen. Seguru jende askok honen berri baduela; bere egunean Rocio Carrasok egin zuen teknika honen promozioa. Teknika honen bitartez, modu naturalean, erabilitako produktuaren barneratze handiagoa lortzen da, emaitza hobekia lortuz.

Orain, berriz, INDIBA 308 teknika aurkeztu dugu.

Zertan datza INDIBA 308?

Potentzia handiko indarberritzailea da, ildasken (estrías) arazoa asko hobetzen du eta denboraz hartuta hauek ezabatu ere egiten ditu. Orain arteko teknikarekin, ehunaren ahulezia konpontzen genuen baina INDIBA 308 teknikarekin, ehun-muskularraren ahuleziari irtenbidea ematen diogu.

Zeintzuk dira estetika sektoreko tendentzia berriak?

Egia esan, plazerra eta aisialdia bezalako kontzeptuak gero eta indar gehiago dute gure gizartean. Erritmo ikaragarrian bizi gara eta gure espazio propioa behar dugu, une atsegin eta lasaigarri hori, mimo batzuk jaso.

Zer eskaintzen duzue Lirainen plazerraren inguruan?

Lirainen kontzienteak gara behar hauek daudela. Horregatik “MIMAZAITEZ” kontzeptua lantzen ari gara. Guztiontzat da atsegina norbait gutaz arduratzea, gu zaintzea, mimatzea. Zentzu honetan, aspaldi ditugu Lirainen zerbitzu lasaigarriak: masajeak, hidromasajea, estresaren aurkako tratamenduak... Bost zentzumenez gozatu behar ditugun esperientzia liluragarriak.

Gabonak gainean ditugu eta egun hauetan gehiegikeri asko egiten ditugu. Aholkuren bat?

Egun hauetaz gozaten ere jakin behar dugu. Aurten, oparia egiteko orduan originalak izatea da nire aholkua. Oparitu dezagun osasuna. Lirainen, zerbitzu lasaigarriak, masajeak, gorputz eta aurpegi tratamenduak eta kalitate handiko produktuak aurkituko dituzue, betebetean asmatuko duzue.



“INDIBA 308arekin ehun-muskularraren ahuleziari irtenbidea ematen diogu”



Gabon hauetan ere operatu zaitez osasuna; “MIMA ZAITEZ”

dura ohituretan aholkularitza profesionala izan dezan eta gorputz tratamenduetan tresneria aurreratuena eskaintzen dugu. Gainera, kirol pixka bat egitea ere gomendatzen dugu.

Emaitzak lortzen dira?

Bai. Momentuz, oso pozik gaude lortutako emaitzekin. Nire ustez, gakoa, kalitatezko produktuak eta tresneria aurreratuena eskaintzeaz gain, Lirainen dugun talde profesionala da. Etengabeko formakuntza eta bezeroari guztiz orientatuta egotea dira gure sekretuak. Ezinbestekoa da bezeroari entzutea, bere beharrak eta itxaropenak ezagutzea, berari dagokion soluziorik egokiena eskaintzeko.



mima zaitez!



Bixente Ferrer 1
ARRASATE
Tel.: 943 79 52 17
Faxa: 943 77 08 15

profesionaltasuna segurtasuna esperientzia konfiantza

Goienka2a

Egubakoitza / 2005eko azaroaren 18a

Kultura
eta
aisialdia



Azaroaren
18tik 25era

8	4	9	6	1	5	7	3	2
3	7	1	4	2	9	8	5	6
5	6	2	7	3	8	9	1	4
7	1	6	9	8	4	3	2	5
4	9	3	2	5	7	6	8	1
2	8	5	1	6	3	4	9	7
1	3	8	5	7	6	2	4	9
9	2	7	3	4	1	5	6	8
6	5	4	8	9	2	1	7	3

6					9	1		3
	7				2	4		
		1	6				5	
3		5	4					2
				6				
1					7	3		8
	4				5	7		
		9	1				6	
5		2	3					9

	3	7			9			1
6			4		1			
4			8			5		
	2	8					3	7
7	1					2	4	
		9			7			5
			6	3				2
2			9			3	6	

							5	4
	5	4				6		
3			2			7		
			1	7			4	8
7	3			4	9			
		1			7			9
		5				3	2	
2	9							

				1	9			
	5					4	2	
	4				6			
7		1						
6				8				9
						8		4
			2				6	
	9	5					1	
			7	3				

	8		5				2	
1				7		9		6
	3				4			
		5						3
	7							8
2						1		
			1				4	
6		2		9				5
	4				3		9	

3						5		
		9	6	8				
	1			4				7
	6		2					
	7	5				1	3	
					9		4	
2				3				8
				1	7	9		
		4						6

		3				7		
	2		4		6		8	
1				5				9
	9						1	
		8		4		2		
	7						9	
6				2				8
	5		3		1		7	
		4				6		

			1			2		
1		7		2		8		
	5				3			1
3						4		9
	2			7			5	
4		5						6
8			9				1	
		4		3		9		2
		9			7			

SUDOKUAK

ZABALDU DA SUKARRA GUREAN ERE /15



RIP

PUNKAREN 25 URTEKO HISTORIA BIZIA



DVD Erreportajea-elkarrizketak Kontzertuak Argazki galeria Bestelakoak

CD Argitaragabeko 14 abesti

Salgai ohiko
tokietan eta
GOIENAKo
egoitzetan



DVD-CD SALGAI

DENBORA-PASAK/ SUDOKUZALE ASKO DEBAGOIENEAN

“Bukatu arte jarraitu gura duzu”

SUDOKU LOGIKA JOKOAK EGITEN DITUZTE DEBAGOIENDAR ASKOK, ETA PUZZLE HORIEN XARMA AZALDU DIGUTE ZALE BATZUEK

LEIRE KORTABARRIA

Sudoku puzzleak gero eta zale gehiago dituzte mundu osoan, baita Debagoienez ere. Zebakietan oinarritutako denbora-pasa da, baina ez da matematikarik jakin behar gehienak egiteko. Debagoiendar batzuek azaldu digute zertan datzan eta zergatik zaletu diren eurak.

Edonon agertzen dira sudoku puzzleak: azken hilabeteotan, egunkari gehienek dakarte sudokua, eta baita maiztasun txikiagoko aldizkari askok ere. Itxura aldetik, sinplea da 9x9 laukitxoko panel bat, barruan ere bederatziz zenbakiko karratuak dituen; egiteko ere, sinplea izan daiteke... edo ez, hainbat zailtasun maila dagoelako; hala, edozeinek egin ditzake sudokuak.

Sudokuaren oinarriak ere oso sinpleak dira: errenkada, zutabe eta koadroko azpisail bakoitzean 1etik 9ra bitarteko zenbakiak ipini behar dira, errepikatu gabe. Sudoku on batek soluzio bakarra du. Laukitxo bakoitzeko zenbakia asmatzeko, sudokuak zenbaki batzuk dakartza aurretik. Zenbat eta zailagoa, orduan eta zenbaki-pista gutxiago izango ditu. Ez da matematika behar, logika baizik.

ZALE ASKO KOADRILAN

Joko horrek debagoiendar asko harrapatu ditu. Horieta bat da Iñigo Alkorta bergarar gaztea. Denbora-pasak asko gustatzen zaizkio, eta joan den udan deskubritu zituen sudokuak; geroztik, tabernan dauden egunkarietakoak betetzen ditu gustura. Iñigok dagoeneko badaiki egunkari bakoitzak zelako sudokuak dakartzan: “Desberdinak probatu ditut: batzuk errazagoak, beste batzuk zailagoak...”, diosku. Koadrilako beste batzuk ere zale egin dira, eta zailenak elkarrekin egiten dituzte.



OIHANA ELORTZA

Aitziber eta Iñigo bergararrek tabernako egunkarietako sudokuak egiten dituzte sarritan.

Konturatu direnez, inguruan beste sudokuzale asko dago, izan ere, “askotan, eginda daude dagoeneko”, Iñigoren esanetan.

Bergarar horri “entrenigarriak” iruditzen zaizkio sudokuak, eta etxean egiteko sudoku aldizkariak ere erosi ditu. Horiere gero eta gehiago ikusten dira salmenta lekuetan: lehen hitz gezidunak edo denbora-pasa klasikoak bakarrik zeuden lekuetan, orain sudoku argitalpenak ere badaude.

“BEREHALA BUKATZEN DIRA”

Iñigo Alkorta ez da, ezta gutxiago ere, sudoku aldizkariak erostera pasa den zale bakarra. Hone la diosku Mari Kruzek, Oñatiko Haritza liburu-dendako ardura-dunetako batek: “Bai, bai, jende-

ak asko erosten ditu. Izan ere, berehala bukatzen zaizkigu. Ikusten da engantxatuta dagoela asko, neu ere bai”, aitoritzen du.

Zale moduan, Mari Kruzek honela azaltzen du joko horren erakargarritasuna: “Badauka bere xarma, bai. Hasteagatik hasten zara eta gero bukatu arte jarraitu gura duzu. Hainbat zailtasun maila dago, eta hori ere erakargarria da. Zailenek 2-3 ordu behar dituzte betetzeko”.

Saltzaile horren esanetan, adin guztietako jendea joaten zaio sudoku aldizkari bila, baina “batez ere, 30 urte ingurukoak edo gorakoak, baina denbora-pasa aldizkariak, orokorrean, adin horretako jendeak erosten ditu gehien. Gazteagoak ez dira hain zaleak”.

LIBURU SALDUENEN ARTEAN

Sudokuen fenomeno mundu osoko kontua da. Hala, Espainiako egunkari irakurrienetarikoa batek I. Espainiako Sudoku Txapelketa antolatu du; sari nagusia da auto bat.

Ameriketako Estatu Batuetan ere sekulako indarra hartu du denbora-pasa horrek. Hala, sudokuen inguruko liburuak AEBko liburu salduenen zerrendan agertu dira, eta Interneteko denda handienetako batek, *www.amazon.com*-ek, halako 153 liburu saltzen ditu, denetarikoa: helduendako, umeendako, 2006ko Sudoku egutegia... Edozein herri eta hizkuntzako erosleek eskatzen dituzte; izan ere, puzzle horien abantaila bat da unibertsalak direla.

Puzzleak Interneten

Zelan ez, sudokuak poltsikoko telefonoetara ere iritsi dira, eta puzzle horiek jaisteko aukera dago. Internet bidez ere jokatzeko modua dago, jakina. Sudokuen inguruko webgune asko dago, batzuk beste batzuk baino hobek. Jakina, *www.sudoku.com* webgune bat badago, nahiko konpletoa, gainera. Lau mailako –erraza, ertaina, zaila eta oso zaila– sudokuak eskaintzen ditu *www.websudoku.com* lekuak. Hala ere, gomendatzen dute paperean egitea, eta arkatzez; izan ere, askotan apunteak egin behar dira, zenbakiak borratu...

Ordenagailua erabil daiteke baita sudokuak sortzeko ere. Baina sortzaileek, egileek baino gehiago, modu klasikoa defenditzen dute. Hirofumi Fujiwarak, Japoniako programatzaile onenetako batek, hau dio: “Erraza da halako programa bat egitea, baina ematen dituen denbora-pasak oso aspergarriak dira. Ezingo da inoiz sortzaile baten sentsibilitatea ordenagailura pasa”.



Sudoku webgune bat.

“Moda bat da, eta bukatu egingo da”

Sudokuen hain zale ez direnak ere badaude. Hala, Iñaki Agirresarobe denbora-pasa egileak bere iritzia eman digu: “Sudokuak boom bat izan dira, ez bakarrik hemen, baizik eta mundu osoan; baina moda bat da, eta, moda bezala, joan egingo da”. Agirresaroberen iritziz, sudokuak “oso mugatuak” dira, joko moduan, eta “jendea aspertu egingo da”. Bere

esanetan, “askoz aberatsagoak dira denbora-pasa klasikoak”. Egile honek gaineratzen duenez, “orain, prentsan agertzen dira sudokuak, leku askotan, baina beti beste denbora-pasa mota batzuen mende egongo dira”.

Hala ere, Agirresarobek sortu, sortzen ditu sudokuak hainbat aldizkarirendako, eta baita Luma euskarazko denbora-pasa aldizkariarendako ere,

berak sortutakoa. Herri aldizkari batzuek ere eskatu berri diote sudokuak sortzea. “Ez dira sortzen zailak”, dio.

Denetariko denbora-pasak sortzen ditu Iñaki Agirresarobek, eta Euskal Herrian joko mota arrakastatsuen hitz gezidunena dela esaten du. Arrazoa, bere hitzetan, “egilearendako erosoa” dela, definizioak jokoan bertan daudelako.

Jatorria AEBetan dute

Japonierako izena hedatu da (*sudoku* hitzak *zenbakia* bakarrik esan nahi du), eta Japonian zabaldu zen lehenengo moda, 1984an, baina joko hori ez da, jatorriz, hangoa.

Oinarria Leonhard Euler matematikari suitzarrak ipini zuen XVIII. mendean. Bera 9x9ko koadroa erabiltzen hasi zen. Jokoa bera noiz hasi zen ez da ziurra, baina uste da New Yorken sortu zela 1979an. Dell

Magazines enpresak argitaratu zuen gaur ezagutzen dugun formatuan. Handik Japoniara pasatu zen, Nikoli argitaletxeak eramanda, 1984an, eta Japoniatik mundu osora.

Formatu ezagunena 9x9ko koadroarena da, baina bariante asko dago: sudoku txikiak (3x3koak), ertainak (16x16koak), letrak erabiltzen dituztenak, logika eta batuketak konbinatzen dituztenak...

Azaroak 18-25

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

DEIAK

ARETXABALETA

► **Gaztelekuan** capoeira ikastaroa eta argazki erakusketa izango dira gaur, egubakoitza, hasi eta domeka arte.

► **Bularreko minbizia** goiz antzematearen gainean berbaldia egingo du Kattalin elkarteak, bularreko eta ginekologia-minbiziak kaltetutako emakumeen elkarteak. Emakume guztiei zuzenduta dago, bereziki 50-64 urte bitartekoei. Hilaren 24an, eguna, izango da kultura etxean, 18:00etan.

ARRASATE

► **Umeen Eguna** antolatatu du Txatxilipurdik bihar, zapatua, Gazte Asteburuak programaren barne. Puzgarriak eta tailerrak izango dira Uarkapen, 11:30etik 13.30era, eta Poxpolo, Mokolo eta Konpainia pailazo taldearen emanaldia, 18:00etan (sarrera, 1,50 euro).

► **Loditasuna eta diabetesaren** gaiaz berba egingo du Alberto Rodríguez medikuak hilaren 23an eta 24an, Monterronen, 16:30ean, Eroskiren Kontsumitzailearen Eskolak antolatuta.

DEBAGOIENA

► **Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala ikusteko** txartelak daude Bilintx dendan eta Arrasate, Bergara, Oñati eta Aretxabaleto euskara elkarteetan, 25 eurotan. Bertsozale Elkarteak antolatatu duen bazkarirako txartelak euskara elkarteetan bakarrik daude.

► **Baserrietan erabili diren plastikak** batuko ditu Debagoieneko Landa Garapen Agentziak hilaren 22an, martitzena. Ohiko lekuetatik pasako dira. Argibideak, 943 76 25 47 telefonoan.

ESKORIATZA

► **Mario Padilla txistulariaren omenezko** ekintzak izango dira asteburuan: bihar, zapatua, Txistua eta dantza gure kulturaren erakusketa inauguratuko dute Ibarraundi museoa, 19:00etan, eta zabalik geratuko da abenduaren 4 arte; Eskoriatzako Txistulari Taldeak eta Musika Eskolako Bandak kontzertua egingo dute parrokiaren, 20:00etan; eta etzi, domeka, kalejira egingo dute hainbat txistularik 12:00etan, eta omenaldi ekitaldia egingo dute udaletxe ondoan 13:00etan.

OÑATI

► **Odol-ateratzeak** egingo dituzte gaur, egubakoitza, Txantxiku ikastolan, 18:00etan.

► **Eskiko federatu txartela** berritzeko azken eguna duzue hilaren 22a, martitzena, Aloña Mendi tabernan, 19:30ean.

► **Gizentasuna, anorexia eta bulimia** delako hitzaldia egingo du Ana Elbusto sendagile nutrizionistak martitzenean, hilak 22, Txantxiku ikastolan, 18:30ean. Guraso guztiei zuzendutako berbaldia da. Euskaraz izango da.

LEHIAKETAK

BERGARA

► **14. Amodiozko Gutunen Berrigara Lehiaketa** deitu du Jardun elkarteak 1991n edo lehenago jaiotako edozeinendako. Lanak, jatorrizkoa eta hiru kopia, euren egoitzara –Errotalde jauregia, z/g– bidali behar dira, edo kulturajardun@topagunea.com helbidera, urtarrilaren 5a baino lehen. 940 euro dituzte aurtan saritan banatzeko.

ESKORIATZA

► **Gabonetako postal digitalen** lehenengo lehiaketa antolatatu du Udalak, Gabonetan erabiliko duen zorion-irudia aukeratzeko. Abenduaren 2ra bitartean bidal daitezke lanak lehiaketak@eskoriatza.net helbidera. Lan guztiak www.eskoriatza.net/KulturaTurismoa/christmas/lanak helbidean ipiniko dituzte, eta dagoeneko batzuk badaude. Bestetik, Gabonetako marrazki lehiaketa ere deitu du Eskoriatza eta Gatzagako umeendako. Lanak ludotekara eramane behar dira.

DEBAGOIENA

► **I. Euskal Herriko Ikus-entzunezkoen Rallya** antolatatu du Topaguneak, eta izenematea hilaren 21ean bukatuko da. Argibideetarako, jo www.topagunea.org/berriak/index.php?aukera=ikusi&berrikodea=263 webgunera.

OÑATI

► **Laixanek Gabonetako postal lehiaketa** deitu du LHko 2. mailatik DBHko 3. mailara bitartekoendako. Ez dituzte onartuko Papa Noelen irudia, erliebezkoak edo ordenagailuz egindako lanak. Eraman postalak turismo bulegora edo Laixanen egoitzara.

IKASTAROAK

ARETXABALETA

► **Egunkaria Internetez irakurtzearen** inguruko ikastaroa emango dute eguaztenean, hilak 23, KZgunean, 19:00-20:00. Oinarrizko Internet ikastaroa ere ematen dute astelehenerdik aurrera, 16:00-18:00.

Helduendako euskal dantza

